

**PARTAIDETZAZKO
AURREKONTUAK
2026 - 2027**

**Bozketa fasera
iritsi diren 23
proposamenen artean
aukeratzeko unea
iritsi da**

Urtarrilaren 12tik 30era irekiko da bozka fasea

UDAL AURREKONTUAK

2,5 milioi euroko
aurrekontua onartu du
udalbatzak 2026rako



ESKUBALOIA

Bidasoa eta Aranda, Asobal-eko taldeak Zubikoan ariko dira urtarrilaren 31n, eskubaloia sailaren 50. urteurrenari hasiera emanez



IZAN GOGO GARA

Euskal Herriko historia ezagutzeko jardunaldiak antolatu ditu Nabarralde



PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK 2026/2027

Bozkatu eta erabakitzeke unea iritsi da



> Bozka fasera heldu diren **23 proposamenen** artean aukeratzeko ordua da. > **Urtarrilaren 12tik 30era** eman ahal izango dira bozkek. > **Herritar bakoitzak 7 proposamen** hautatu behar ditu, nahitaez, bozka baliagarria izateko.

Udal aurrekontuetako 600.000 euro zertan inbertitu erabakitzeke parte-hartze prozesua azken fasera iritsi da, bozka fasera, alegia.

Gogoratu, irailean jarri zela abian prozesua, herritarrek egindako proposamenekin. Halako 411 jaso ziren. Gero, proposamen horiek guztiak Mahai Politikoak –udalbatzan dauden bi alderdi politikoetako ordezkariak osatua– aztertu zituen, aurrez ezarritako baldintzak betetzen ote zituzten erabakitzeke. Lehen galbahe horren ostean 145 proposamen igaro ziren bigarren fasera.

Bigarren fasean ('Leheneste fasea') herritar guztiei irekitako bi saio egin ziren, 145 proposamen horiek puntuatu eta baloratzeko, lau irizpideren arabera: **1.** Onuradun kopurua; **2.** Onuradunen ezaugarriak (herritar zaurgarrienen beharrei erantzuten ote dion); **3.** Eskaera historikoa ote den (Oñatin aspaldidanik egiten dena); eta **4.** Exekutatzeko erraztasuna.

Leheneneste saio horietan puntuazio altuena jaso zuten 50 proposamenak igaro ziren hirugarren fasera ('Bideragarritasun fasea'). Fase honetan proposamenen bideragarritasun tekniko, juridiko eta ekonomikoa aztertu dute

udaletzeko arlo ezberdinetako teknikari eta zinegotziek, eta horren arabera erabaki da zein proposamen igaro diren bozka fasera.

Oñatin erroldatuta eta 16 urte beteta dituzten herritarrek soilik parte hartu ahal izango dute bozketan



NOIZ, NON ETA NOLA BOZKATU

Urtarrilaren 12tik 30era bozkatu ahal izango da, hiru bide hauetatik:

- **Online:** udal webgunearen bidez, galdetegia beteta (www.oñati.eus/eu/partaidetzazko-aurrekontuak) bidez.
- **Postontzietan:** Etxe guztietara banatuko den eskuorria bete eta udal eraikin publikoetan eta bestelako ohiko tokietan (udaletxea, kultur etxea, kiroldegia, Gaztelekua, Pake Leku, Eltzia...) ipiniko diren kutxetan bozka-papera sartuz
- **Erakusketa ibiltaria:** Tokiak eta ordutegia zehaztu gabe daude oraindik, baina **urtarrilaren 16, 22 eta 28an** herriko pasoko lekuetan ipiniko dira bozka eman ahal izateko mahaiak.

Urtarrilaren 12an **16 urte beteta** dituzten herritarrek soilik parte hartu ahal izango dute bozketan, eta derrigorrezkoa da datu pertsonalak betetzea, bozka baliagarria izateko. Bozka fasera igaro diren 23 proposamenen artean 7 gustukoena aukeratu behar dira, nahitaez. Gehiago edo gutxiago markatuz gero, bozkek ez du baliorik izango.

Boto gehien jasotzen dituzten proiektuak (600.000 euroak agortu arte) 2026 eta 2027ko udal aurrekontuetan txertatuko dira. Ondoko orrietan daude ikusgai bozketa fasera igaro diren 23 proposamenak.



Bozketa fasera igaro diren 23 PROPOSAMENAK

> Porposamenak hiru multzotan sailkatu dira aurrekontuaren arabera: **Txikiak** (10.000€-50.000€), **Ertainak** (50.000€-110.000€) eta **Handiak** (150.000€-225.000€)

> Porposamen guztien artean **7 gustukoenak** aukeratu behar dira, nahitaez, bozka baliagarria izateko



1 AURREKONTUA: 10.000 €

ZAKARRONTZI GEHIAGO JARTZEA HERRIKO HAINBAT LEKUTAN



Hondakinak gaika jasotzeko zakarrontzi berriak jartzea.* Udalaren irizpidearen arabera aukeratuko dira lekuak.

2 AURREKONTUA: 15.000 €

BANKUAK JARTZEA EDO EGOKITZEA HERRIKO HAINBAT LEKUTAN



Deskantsurako eserleku berriak jartzea edota daudenak egokitzea hainbat lekutan: San Juan kalean, Santa Marina plazan, Ugarkaldeko goiko aldean eta San Martin auzoko pasealekuan.

3 AURREKONTUA: 20.000 €

BIDAURRETAKO BERDEGUNEA AISIALDIRAKO ZEIN ATSEDENERAKO GUNE BIHURTZEA



Bidaurretako monastegiaren pareko berdeguneaz goatzeko eta bertan egoteko, aisialdirako eta atsedene hartzeko ekipamenduak eta hiri altzariak jartzea.* Udalaren irizpidearen arabera aukeratuko dira elementuak.

4 AURREKONTUA: 20.000 €

BIDAURRETAKO ZUZENGUNEAN ATERPEA JARTZEA



Bidaurretako zuzengunean, iturriaren inguruetan, aterpea jartzea, eguraldi txarreko egunetan atsedene hartzeko aukera izateko.

5 AURREKONTUA: 25.500 €

KIROLDEGIKO GIMNASIOKO KANPO-PATIOA ENTRENAMENDU FUNTZIONALERAKO PRESTATZEA



Zubikoa kiroldegiko fitness gelako kanpoko patioa entrenamendu funtzionalerako prestatzea eta elementuekin ekipatzea.

6 AURREKONTUA: 40.000 €

PARRILLA GUNEA IBARRAKO AISIALDI EREMUAN



Ibarrako aisialdi eremuan barbakoak egiteko elementuak jartzea.

7 AURREKONTUA: 40.000 €

SANTA ANAKO PATINETEEN APARKALEKUA ESTALTZEA



Santa Ana antzokiaren aurrekaldeko patineteen aparkalekuari estalpea jartzea.

8 AURREKONTUA: 47.000 €

**ARBOLEDA PASEALEKUAN
IBILGAILUEN BIDEGURUTZEETAKO
OINEZKOEN ARRAPALAK
EGOKITZEA**



Obispo Otadui pasealekua ibilgailuak zeharkatzen dituzten eremuetan kaltetutako arrapalak konpontzea, oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko.

9 AURREKONTUA: 50.000 €

**HAINBAT BIZIKLETA APARKALEKU
JARTZEA HERRIAN ZEHA**



Bizikletentzako hainbat aparkaleku jartzea herrian zehar, eraikinen eta azpiegituren inguruan. * Udalaren irizpidearen arabera aukeratuko da non.

10 AURREKONTUA: 50.000 €

**BIZIKLETAK GARBITU ETA
KONPONTZEKO GUNEA BERRITZEA
ETA BIGARREN BAT JARTZEA**



Bidebarrieta kalearen amaieran dagoen bizikletak prestatzeko, matxurak konpontzeko eta garbitzeko guneko elementuak berritu eta herrian beste gunek berri bat prestatzea. * Udalaren irizpidearen arabera aukeratuko da non.

ERTAINAK
50.000 € - 110.000 €

11 AURREKONTUA: 60.000 €

**SAN ANTON KALEAREN
OINEZKO LOTURA HOBETZEA
MAIATZAK 1 PLAZAREKIN ETA
KALE-ZAHARRAREKIN**



San Anton kalearen oinezko lotuneak egokitzea Maiatzaren 1a Plazarekin eta Kale Zaharrarekin, ibilbidea irisgarriagoa egiteko.

12 AURREKONTUA: 80.000 €

**KURTZEKUAN JOLAS PARKEA
EGITEA**



Kurtzekua auzunean jolas parke berria egitea. * Udalaren irizpidearen arabera aukeratuko dira jolas elementuak.

13 AURREKONTUA: 80.000 €

**ERREKAREN KONTRA,
PARROKIATIK POSTETXERAINOKO
IBILBIDEKO IRISGARritasUNA
HOBETZEA**



Parrokiatik Postetxearen ondoko biribilgunearen arteko ibilbidea, errekaaren kontra, oinezkoentzat irisgarriagoa egitea.

14 AURREKONTUA: 100.000 €

**ATEZ ATEKO HONDAKINAK
JASOTZEKO ZINTZILIKARIOAK
BABESTEKO PANELAK JARTZEA**



Haizeak asko jotzen duen gunetan atez ateko hondakinak jasotzeko zintzilikarioen inguruetan panelak jartzea. * Udalaren irizpidearen arabera aukeratuko dira gunek horiek.

15 AURREKONTUA: 100.000 €

**HILERRI INGURUAN KOMUN
PUBLIKOA JARTZEA**



Berez garbitzen den eta irisgarria den komuna jartzea hilerri inguruetan. Udalaren irizpidearen arabera erabakiko da leku aproposena.

16 AURREKONTUA: 100.000 €

KIROLDEGIAREN AURREALDEKO JOLAS PARKEA BERRITZEA



Kiroldegiaren aurrealdeko jolas parkea berritzea. * Udalaren irizpidearen arabera aukeratuko dira jolas elementuak.

17 AURREKONTUA: 100.000 €

ERREKALDE AUZOAN KOMUN PUBLIKOA JARTZEA



Berez garbitzen den eta irisgarria den komuna jartzea Errekalde auzoan. * Udalaren irizpideen arabera aukeratuko da lekua.

18 AURREKONTUA: 108.000 €

HERRIGUNEKO 6 ITURRI HISTORIKOAK ERABERRITZEA



6 iturri historiko eraberritzea, haien balio historikoa kontserbazteko: Plazako iturria, San Anton Plazako iturria, Kanpantxo Iturria, Santa Marina Plazako iturria, Etxaluzeko Iturria eta Iturritxoko iturria.

HANDIAK
150.000 € - 225.000 €

19 AURREKONTUA: 150.000 €

PLAZAKO KOMUN PUBLIKOAK BERRITZEA



Udaltzaingoaren eraikinean dagoen komun publikoaren instalazioak eta komuna eraberritzea, egungo arazoak —usain desatseginak...— konpontzeko.

20 AURREKONTUA: 150.000 €

HERRIGUNEAN ZEHAU ZUHAITZAK LANDATZEA



Herriguneko hainbat tokietan zuhaitzak landatzea, espazio publikoak berdetzeko. * Udalaren irizpidearen arabera aukeratuko dira lekuak.

21 AURREKONTUA: 225.000 €

HILERRI BARRUKO IRISGARITASUNA HOBETZEA



Hilerriko hartxintzar guneeetan zoladura aldatzea eta euri-urak jasotzea, oinezkoentzat ibilbide irisgarria prestatzeko.

22 AURREKONTUA: 225.000 €

PLAZAKO ADOKINAK KONPONTZEA, EURI-UREN SARETEK ERAGINDAKO KOSKAK EZABATZECO.



Lan horiekin, sareten inguruan sortu diren beherapen eta irregularitasunak kendu nahi dira, Foruen Enparantzako irisgarritasuna hobetzeko.

23 AURREKONTUA: 225.000 €

HERRIKO HAINBAT AUTOBUS GELTOKIETAN, AUTOBUSAREN ETA ESPALOIAREN ARTEKO TARTEA IRISGARRIAGOA EGITEA



Bidaiaariak autobusera igotzeko edo autobusetik jaisteko espaloia egokitzea. * Udalaren irizpidearen arabera aukeratutako dira autobus geltokiak.



IZAN GOGO GARA

2026

> Iragana ezagutzea, oraina ulertu eta komeni zaigun etorkizuna proiektatzeko. Horixe, Oñatiko Nabarralde taldeak antolatu dituen jardunaldien helburua.

> Mendebaldeko Nafarroaren galera (1200), Nafarroaren konkistaren (1500) osteko garaia, Foruen defentsarako gerrak -Karlismak-, eta euskal abertzaletasunaren sorrera izango dira hizpide, besteak beste.

> Egitarau mamitsua prestatu dute: lau hitzaldiz gain, dokumental emanaldi, erakusketa eta irteera-ibilaldi bana

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop



carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com



Nazio baten nortasuna batez ere bi ezaugarri finkatzen dute: hizkuntzak eta memoriak. Elkarrekin nola bizi garen, eta elkarrekin zertzuk bizi izan ditugun.

Horregatik, konkistatuak izan ondoren (1200, 1512, 1620) Frantziak zein Espainiak bi arlo horietxek izan dituzte jopuntuan gure asimilazioa gauzatzeko, guk geure nortasuna alboratu eta beraiena onartzeko.

Orozen eskutik, 1200ean mendebaldeko Nafarroa galdu genueneko errege Antso VII.aren umoretik landutako berri izango dugu. 1512ko konkista osteko gaiarekin dator Asiskoren ustezko sorginen dokumentala. Umoretik lantzen nekeza. Konkistatuak izan bai, baina onartzen ez zuten horiek nola jarraitu zituzten kontatzen digu.

Beste bi hitzaldietan Foruen defentsako gerrak (karlistaldi bezala ezagunagoak) izango ditugu hizpide. Muñagorri eta Zumalakarregiren figuren bitartez, Eugenio eta Joxemarik 1833 bueltako independentzia grina erakutsiko digute.

Xosék berriz, ondorengo garaietan euskal abertzaletasuna nola garatu zen azalduko digu, gaur egunera arte.

Ibilaldi bat ere egingo dugu Garañoko gaztelura Egillorretik abiatuta, Iñaki Sagredoren eskutik bertako kontuak, 1512ko konkista batez ere, adituz. Oñatitik kotxez joango gara bertara, 8etan Olakuan irtenda.

Ohitura bilakatu denez, Habitat izeneko erakusketa paratuko dugu aurten ere, gure lurretan gizakiak izan duen bilakaera politiko-instituzionala erakusten duena: aurrekariak erromatarren garaitik, estatuaren sorrera, gorpuztea, eta zatika-zatikako bortxazko desegitea. Publikoarendako zein DBH4ko ikasleendako bisita gidatuak izango ditugu, Beñi Agirreren eskutik.

Oraina ulertu eta komeni zaigun etorkizuna proiektatzeko, ongi etorri iraganaren ezagutzara.

Oñatiko Nabarralde taldeko kideak

EGITARAUA

► URTARRILAK 19

BISITA GIDATUA: 'HABITAT: Euskaldunon hisotia mapen bitartez' Beñi Agirre historialariaren eskutik. Kultur etxeko erakusketa gelan, 18:30etan.

► URTARRILAK 20

LIBURU AURKEZPENA: 'MUÑAGORRI, EL CONDE Y LAS CONDESAS: PAZ Y FUEROS (1745-1842)'. Eugenio Ibarzabal ekonomista, kazetari eta idazlearen eskutik. Zine aretoan, 18:30etan.



► URTARRILAK 21

LIBURU AURKEZPENA: 'ANTSO AZKARRA SUTAN!!!'. Cesar Oroz marrazkilaria eta binegatilearen eskutik. Zine aretoan, 18:30etan.



► URTARRILAK 23

DOKUMENTALA: 'SORGINA, BANAIZ'. Asisko Urmeneta irudigile eta komikilariaren eskutik. Zine aretoan, 18:30etan.



► URTARRILAK 25

IRTEERA-IBILALDIA: GARAÑOKO GAZTELUA. Iñaki Sagredo historialari eta arkeologoak gidatutako bisita gidatua. Irteera (kotxez) Olakuan, 8:00etan.



► URTARRILAK 27

LIBURU AURKEZPENA: 'ORÍGENES DEL NACIONALISMO EN EUSKAL HERRIA 1893-1923'. Xosé Estévez historialariaren eskutik. Zine aretoan, 18:30etan.



► URTARRILAK 30

LIBURU AURKEZPENA: 'ZUMALAKARREGI Y LA REPÚBLICA DE LOS PIRINEOS'. Joxemari Esparza historialari eta idazlearen eskutik. Zine aretoan, 18:30etan.



► URTARRILAK 19-30

ERAKUSKETA: 'HABITAT: EUSKALDUNON HISTORIA MAPEN BIDEZ'. Euskal Herriak izan duen bilakaera politiko-instituzionala erakusten duena. Kultur etxean, egunero, astelehenetik igandera, 18:00-20:00.

JUANJE MARGOAK
627 818 247

ARKITEKTURA

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com



22,4 milioi euroko aurrekontua onartu du udalbatzak 2026rako

> EH Bilduren aldeko eta EAJren aurkako botoz onartu dira aurrekontuak. > Inbertsioetara 2,3 milioi bideratuko dira.

2026ko Udal Aurrekontuak onartu zituen udalbatzak abenduaren 18ko osoko bilkuran, EH Bilduren aldeko eta EAJren aurkako botoz. Horrenbestez, Udalak 22.495.557 euro izango ditu urte berriko gastu, egitasmo eta erronkei aurre egiteko.

2025eko aurrekontuarekin alderatuz, 2026koak %1,86ko igoera izango du (411.668 € gehiago). Diru sarreraren atalean, Udalen Finantzaketarako Foru Funtsean 638 mila euroko igoera aurreikusten da -11 milioi pasatxo, denera- eta zerga eta tasen udal ordenantzak KPlaren arabera eguneratzeak ere igoera bat ekarriko du.

Gastuen atalean, pertsonal gastuen (%6,09) eta inbertsioen igoerak dira azpimarragarrienak. Inbertsioetara 2,3 milioi pasa bideratuko dira. Horri aurre egiteko, 475 mila euroko mailegu berria jaso da aurrekontuetan, baina bere gauzapena 2025eko ekitaldiko emaitzek baldintzatu dezakete, mailegu berririk behar

» Sarrera eta gastuak parean dituen aurrekontua da eta 1,9 milioiko aurrezki arrunta aurreikusten da

» Zorpetze maila %4,52koa da

ez izateraino.

Sarrera eta gastuak parean dituen aurrekontua da, eta azpimarratzekoa da, 1,9 milioi euroko aurrezki arrunta aurreikusten dela. Kontutan hartu behar da, aurrezki arrunta dela inbertsioak finantzatzeko iturri nagusia.

ZORPETZE MAILA

Finantza zamari dagokionez, Udalak %4,52ko zorpetze mailarekin ekingo dio 2026ari -2025ean %4,91koa zen- eta zor bizia, berriz, 6,3 milioi eurokoa da 2026ko urte hasieran.

UDAL GOBERNU TALDEA (EH BILDU)

"Legealdi planaren betetze maila altua da; %89a egina edo martxan dugu"

2026ko udal aurrekontuak onartu berrikan, bere poza adierazi zuen udal gobernu taldeak, ia 23 milioi izango dituelako herritarren beharretara bideratzeko, zerbitzu publikoak indartzeko, zaurgarrien alde egiteko, herri berdinazaleago bat eraikitzeko, herritarrak erdigunean dituzten proiektuak abiarazteko, eta herriak dituen erronkei behar moduan heltzeko.

Arduraz landuriko aurrekontua dela adierazi zuen Izaro Elorza alkateak, "hainbat herritar eta eragilarekin landuriko herri proiektua oinarrian duena, alor guztiak kontuan hartzen dituen, herrikideen partaidetzarako espazioak eta bitartekoak eskaintzen dituen, iraunko-

rra, eta herritarrek herri hau eraikitzen jarraitzeko egiten duten lana balioan jarri eta aitortzen duena. Horixe da EH Bilduren eredua, eta bide horretan landu ditugu aurtengo aurrekontuak ere".

Legealdiaren betetze maila altua dela azpimarratu zuen alkateak, "eginak edo martxan baititugu legealdi planaren %89". "Gainera", erantsi zuen Elorzak, "ezin ditugu ahaztu *Next Generation* funtsetik lortu ditugun diru laguntzei esker martxan ditugun proiektu garrantzitsu guztiak. Martxan den herria da gurea, urtez urte hobetzen ari dena, eta egunez egun berresten da hori".

2026ko aurrekontuak 1,9 milioi euroko aurrezki arrunt

garbia aurreikusten duela ere azpimarratu zuen alkateak, "Udalaren egonkortasun ekonomikoa bermatzen delarik".

IDEIA NAGUSIAK

Xabier Igartua udaleko Ogasuna batzordeko burua azpimarratu zuen, EH Bilduren jasotako egitasmo nagusien labur biltzea egin zuten, EH Bildurentzat proiektu denak, alor guztietakoak, garrantzitsuak direla azpimarratu eta gero.

Dirulaguntzei dagokienez, kultura zein kirol eragileei eta auzoetako jai batzordeei zuzendutako dirulaguntzetan %5eko igoera aplikatuko dela azaldu zuen. "Uste dugu aitoritu beharrekoa dela horiek guztiek urte urte eta egunez egun egiten duten lana eta ahalegina.

Jarraian, arlo ezberdine-



**IZARO
ELORZA
ARREGI**
Alkatea
EH Bildu

» **Partaidetzan sinesten dugu, berdinetik berdinerakoan, ongizatean, bidezko eremuan... eta onartu ditugun aurrekontuak bide horretan doaz**

tako egitasmoetako batzuk (ikusi ondoko taulan) zerrendatu zituen Igartuak. Amaitzeko, azpimarratu egin nahi izan zuen oposizioak ez duela desgokitzat ikusi udal gobernuak aurkeztutako



**XABIER
IGARTUA
LOIDI**
Ogasuna
batzordeko
burua
EH Bildu

» **EAJk egin dituen proposamenek iradokitzen digute hasieratik gura izan duela udal gobernuaren aurrekontuaren kontra azaldu**

proiektu bakar bat ere. "Esan moduan, EH Bilduk arduraz eta konpromisoaz lantzen ditu aurrekontuak, herrikide guztiak erdigunean izanda, eta 2026ko proposamen hau ere horren adibide da".

Oposizioaren proposamenei erantzunez

EAJk egindako proposamenei dagokienez (ikusi hurrengo orrialdean), "hamaikatik bost, iaz onartu ez genituenak dira; beraz, badirudi, negoziatzeko baino, udal gobernuaren proposamenaren aurka egiteko aitzakia iruditu zaigu", adierazi zuen Igartuak. Proposamen berrietatik bi egoki ikusi dituztela eta aurrekontuan jaso direla azaldu zuen Ogasuna batzordeko burua: Kalegoien komun publikoa jartzeko 50.000 euroko partida, eta garapenerako lankidetzara bideratzen den partida %0,7ra arte jasotzea (%0,68tik %0,7ra, hau da, 136.500 eurotik 157.500 eurora). "Jakini nahi genuke, hala ere" galdetu zuen Igartuak, "Oñatiko udal gobernuari egin diozuen eskaera bera egiteko prest zaudeten EAJk gobernatzen duen Foru Aldundiari (%0,49ko ekarpena egiten du) eta Jaurilaritzari (%0,34koa). Gure konpromiso maila hartuko balute, 61 milioi gehiago bideratuko lirakeke garapenerako lankidetzara".

Kurtzekuan etxebizitzak eraikitzeke 5.000 euroko eskaeraren inguruan, Igartuak azaldu zuen aurrekontuan badagoela 15.000 euroko partida berezi bat, udalaren lursaillean etxebizitzak eraikitzeke proiektua garatzen hasteko.

Kurtideriako lursaila erosteko 850.000 euroko partida bat jasotzeko eskariari dagokionez, udal gobernuak ez du egoki ikusten esku artean inongo proiekturik izan gabe eta Eusko Jaurilaritzaren prestutasuna zein den jakin gabe, lurrak erosiz udala zorpetzea.

Hiru hilean behin garbiketa egiteko 10.000 euroko partidaren inguruan, gobernuak ez du horren beharrik ikusten, garbiketa horiek udal langileek egiten dituztelako. Eta kale argiteriarako EAJk proposatutako 10.000 euroko partidari dagokionez, Igartuak erantzun zuen aurrekontuetan jasota dagoela 57.000 euroko diru-atala, eta lehentasunen arabera egiten ari direla argiteria hobetzeko lanak, modu programatuan.

Gainerako proposamenei –iaz ere aurkeztutakoei– erantzunez, Oñati eta Elorregi arteko autobus zerbitzua hobetzeak soluzio integrala eskatzen duela esan zuen Igartuak, eta Aldundiaren erantzukizuna dela. Eltzian gimnasioa pintzeari dagokionez, kiroldegian beharrezko inbertsioak egitea egokiago ikusten du EH Bilduk. Herriko puntu ezberdinetan pantaila digitalak ezartzea eta Kontzejupetik aldizkaria QR bidez online gazteleraz irakurtzeko eskaerak ere ez ditu beharrezko ikusten gobernu taldeak. Eta musika eskolaren inguruko eskaerari dagokionez, Igartuak azaldu zuen Musika Eskola guraso elkarte bat dela, Udalak balio handia ematen diola eta, horregatik laguntzen duela diruz urtero, baina etorkizuneko proiektuari dagokionez, Udalak bere lana eginda daukala eta diagnostikoa hor dagoela. •

EGITASMO NAGUSIAK

- **Irisgarritasuna**
335.000 euro Kale Zaharra eta Otadui Zuhaiztia arteko irisgarritasun lanetarako.
- **Olaiturri**
125.000 euro Olaiturriko zorua konpondu eta beste-lako esku-hartzeak egiteko.
- **Etxebizitza**
Udalaren jabetzako lursail batean etxebizitza eredu berri bat sortzeko aukerak aztertzeke 15.000 euro.
- **Ikasketa gunea**
120.000 euro ikasketa gune berri bat egokitzeko Eltzian.
- **Partaidetzako Aurrekontuak**
300.000 euro (eta 2027an beste 300 mila) Partaidetzako Aurrekontuetan herriarrek hautatutako proiektuak burutzeko.
- **Ikastetxeak**
113.700 euro ikastetxeen dirulaguntzetarako, eta 57.000 hezkuntza eragileen arteko elkarlanerako.
- **Pake Leku**
Jubilatuaren Etxea hobetzeko 80.000 euro. Bi urtetan 160.000 euroko lanak egingo dira horrela.
- **Musika Eskola**
35.000 euro musika eskolako birgaitzetarako.
- **Zaintza eta Harrera planak**
40.000 eta 30.000 euro 'Zaintza' eta 'Harrera' planetarako, eta horietatik eratorritako ekintzetarako.
- **Ondarea**
15.000 euro ondarearen diagnostiko eta mantenu planerako.
- **Energia komunitatea**
10.000 euro Oñeko, Oñatiko energia komunitatea laguntzeko.
- **Bakardadea**
10.000 euro bakardade programako ekintzetarako.

EAJ-PNVren BALORAZIOA

"Udal gobernuaren aurrekontuan jasotako partida askok zehaztasun falta daukate"

Hamar proposamen (ikusi ondoko taula) aurkeztu dizkio EAJ-PNVren uda taldeak gobernu taldearen aurrekontu proposamenari, eta horietatik bi onartu eta jaso ditu EH Bilduk: komun publikoa jartzea Kalegoienan, eta nazioarteko garapenerako lankidetzara bideratzen den kopurua aurrekontuaren %0,7ra igotzea.

Gainerako proposamenak ez ditu onartu udal gobernu taldeak eta, horrenbestez, jeltzaleak aurrekontu proposamenaren aurkako botoa eman dute. "Aurkeztu ditugun proposamenek ofñatiarren bizi-kalitatea hobetzeko dira. Herritarrekin etengabe eta elkarlanean egindako lanaren emaitza dira. Haien beharrak entzun ditugu eta haien egunerokotasuna hobetu eta herriaren garapenean aurrera egiteko pentsatuta dauden proposamen errealistak dira, Udalaren esku daudenak eta



AMAIA
EROSTARBE
LETAMENDI
EAJ-PNV

» **Herritarren egunerokotasuna eta herriaren garapenean aurrera egiteko pentsatuta dauden proposamen errealistak aurkeztu ditugu**

guztion konpromisoarekin gauzatu ditzakegunak", adierazi zuen Amaia Erostarbe bozeramaleak.

Xabier Mugarzak, bestalde, udal gobernuaren aurrekontuan jasota dauden partida askoren zehaztasun falta kritikatu zuen. "Partida oso orokorrak dira eta, bestalde, aurreko urteetatik datozen



XABIER
MUGARZA
AYASTUI
EAJ-PNV

» **Proiektuen txertaketa maila oso handia da. Ondorioz, 2026an exekutatu den aurrekontua oso desberdina izango da orain onartzen dugunetik**

proiektuen txertaketa maila oso handia izango da, beste behin. Ondorioz, 2026an exekutatu den aurrekontua orain onartzen denetik oso desberdina izango da".

Bestalde, EAJk adierazi zuen udal gobernuaren alde tik aurrekontu proposamena ia itxita jasotzeak ez duela errazten gauzak planteatzea.

"Etxebizitzarena urgentziazko arazo bihurtu da, eta gobernuaren aldetik ez dugu iniziatibarik ikusten"

2026ko udal aurrekontuei begira EAJren udal taldeak aurkeztutako hamar proposamenetatik bi etxebizitzaren gaiarekin daude lotuta, izan ere, horixe baita, jeltzaleen ustez, esku artean daukagun gai garrantzitsuenetakoa, urgentziazkoa gainera, arazo bihurtuta baitago. "Eta honen inguruan ez dugu iniziatibarik ikusten udal gobernuaren aldetik; ez HAPOn –Hiri Antolamendurako Plan Orokorra–, ez zergen inguruko eztabaidetan, ez aurrekontuetan, ez dugu benetako apusturik ikusten, epe motzean etxebizitza faltari irtenbideren bat eman edo, gutxienez, arazoa zerbait leunduko lukeen planteamendu falta sumatzen dugu", adieraz zuen Xabier Mugarzak.

Ildo horretan, EAJk bi proposamen konkretu aurkeztu ditu. Lehena, Kurtzekuako promozioan Udalak duen parte egitea lehenbailehen. Eta, bigarrena, Kurtideixan 60tik gora etxe egiteko proiektua egon zen partzela erostea eta Eusko Jaurlaritzarekin etxebizitzak egiteko proiektua lantzea. "Partida hau potoloa izanda (850.000€) bi aukera planteatu ditugu", azaldu zuen Mugarzak; azken urteotan sistematikoki exekutatu ez diren hainbat partida kendu eta milioi erdi pasatxoko mailegu berri baten bitartez aurrekontuan orain sartzea, edo, bestela, 2025eko aurrekontuaren likidazioa egin ostean gerakinaren parte bat erabiliz aurrekontuari gehituaz. Uste dugu gaiak garrantzia nahikoa duela eta ez garela buru gabe izugarrikeriarik planteatzen ari; are gutxiago Kale Barriako lokalaren erosketan, Euskaltegirako planteatuta dagoen obran edo Emakumeen Etxean inbertitu diren eta inbertituko diren kopuruak kontuan hartuta. Guk partida horien alde bozkatu genuen, baina etxebizitzarena horiek bezain garrantzitsua eta urgenteagoa dela uste dugu". •

EAJ-PNVren PROPOSAMENAK

• **Kurtzekuan eta Kurtiderixan etxebizitza eraikuntza aktibatzea**
Kurtzekuan udal jabetzeko lurzatan etxebizitzen proiektua abiaraztea (5.000€) eta Kurtideriako lursaila erostea (850.000 €), Jaurlaritzari lagatzeko eta etxebizitzak eraikitzeko.

• **Herribusa Elorregira**
Oñati eta San Prudentzio arteko linea berria sortzea (100.000€) herritarren konektibitatea hobetzeko.

• **Pantaila digitalak**
Herriko zenbait puntutan pantailak jartzea informazio publikoa hobetzeko eta tokiko denden publizitatea egiteko (30.000€).

• **Gimnasioa Eltzian**
Kirodegiko gimnasioa arintzeko (40.000€).

• **Argiztapen publikoa**
Errementari plaza eta Auzabarri arteko argiztapena hobetzea, eta Olabarrietan farolak jartzea.

• **Kalegoienan komuna**
Kalegoienan komun publikoa jartzea (50.000€).

• **Kontzejupetik gaztelera**
Kontzejupetik aldizkaria gaztelaniaz online irakurri ahal izateko QR sistema txertatzea.

• **Nazioarteko lankidetzara**
Nazioarteko garapenerako lankidetzara bideratzen dena aurrekontuaren %0,7raino handitzea (21.000€).

• **Garbiketak**
Espazio publikoak aldizka garbitzeko programa bat ezartzea, bereziki udal ordenantzak betetzen ez diren lekuetan, udalerrian garbitasuna bermatzeko (10.000€).

• **Musika Eskola**
Musika Eskola beste leku batean kokatzeko aukerak ebaluatzea (15.000€).



bidia alkarrekin

Euskal Herri osoan hezkuntza euskalduna garatzen duen sare eraldatzailea



KAIXO!

IKASTOLAK

2026/01/22

- 16:45. tailerak pabiloan eta HH/LH espazioetan
- Elkarriketa pertsonalak
- 18:00. ipuin mugaketa Andurina eta Txetxeekin

2026/01/27

17:00 Aste irekiak BH

2026/01/29

17:00 Barreterapia Manex Beristainekin.

• Plaza mugatuak.
Izen ematea urtarritaren 12tik 19ra.

Urtarrileko
azkeneko
aste osoan

Elkarriketa pertsonalak

Hitzordua hartzeko:
943 78 12 04
txantxiku@ikastola.eus

Landalur sailak erosteko deialdia egin du Udalak

Oñatiko udalerrian landalur izaerako lursailak prozedura ireki bidez erosteko oinarriak eta deialdia egitea onartu du Udalak.

Nekazaritza eta ingurumen arloari dagokionez, Udalaren helburu dira bertako espezie, baso eta ekosistemen kontserbazioa indartzea eta bioaniztasunaren galera geldituko duten politikak sustatzea. Ildo horretan, ingurumen baliokak galtzeko arriskuan izan daitezkeen eremuak identifikatu eta kontserbaziorako ekintzak sustatzeaz gain, bestelako egurgintza eredu baten aldeko praktikak martxan jarri nahi dira. Horrekin batera, egun kontserbazio egoera onean dauden lursailak bere horretan mantentzeko politikak ere sustatu nahi dira.

Aipatutako helburuak gauzatu ahal izateko, lursail berriak eskuratu nahi ditu Udalak, eta horixe da deialdi honen arrazoia.

INTERES GUNEAK

Deialdi honetarako interes gune bezala kontsideratu dira honako eremuak:

- Hegazti nekrofagoen babes eremuak, Natura-2000 eremutik kanpo.
- Aldakiño-Olapoto hiri-basoarekin muga egiten duten basoak.
- Legazpi-Antzuola-Bergara udalerrien arteko muga egiten duen mendilerroa.
- Bakue aldean, Iruetxaboleta edo Paganabar izeneko eremua.

Saltzeko aurkezten diren lursailek guxtienez hektarea bateko azalera izan beharko dute (salbuespenak daude).

Kontratua esleitzeko garaian honakoak hartuko dira kontuan: prezioa eta txosten teknikoa (azalera, udal jabegoko lursaillekiko gertutasuna, eta lursailen malda).

Deialdia argitaratzen denetik 60 egun naturaleko epea irekiko da proposamenak aurkezteko. Udalak 40.000 euroko diru partida dauka lursailak erosteko.

Hilerrian gorpuak arratsalde hilobiratzeagatik tasa berria ordaindu beharko da aurrerantzean

2026ko udal tasa eta zerga ordenantza onartu zenean aurreratu genuen moduan, gorpuak 14:00etatik aurrera hilotatu nahi duten herritarrek 480 euroko tasa ordaindu beharko dute urtariletik aurrera. Orain arteko tasa bere horretan mantentzen da, brigadako langileen lan ordutegian lurperatzea eskatzen dutenentzat, baina ordu horretatik aurrera ehortzi nahi dutenek tasa berria ordaindu beharko dute.

Beste herri batzuetan ezabatu egin dute ilunkaran gorpuak lurperatzeko aukera, baina Oñatiko udalak zerbitzua mantentzearen alde egin du, hori bai, horrek duen gain-kostua tasetara eramanez.



> Gorpuak 14:00etatik aurrera ehortzi nahi duten herritarrek 480 euroko tasa ordaindu beharko dute urtariletik aurrera



Lehendik zeuden 104 plakak birkokatu eta 96 panel berri ipini dituzte

96 eguzki panel instalatu ditu Udalak kiroldegiko kantxa urdineko teilatuan

Autokontsumoan eta, ondorioz, jasangarritasunean urrats berriak ematen jarraitzeko asmoz, kiroldegiko kantxa berdeko teilatuan zegoen azpiegitura fotoboltaikoa osatu egin du Udalak, lehendik zeuden 104 panelak birkokatu eta 96 plaka berri instalatuz, Ekitemik enpresak idatzitako proiektuaren arabera.

Eguzki panel berri bakoitza 580W-koa da –instalazio berriak 55,68 kwp-ko potentzia izango du–, eta egindako simulazioaren arabera, 57.747,63 kWh/urte sortuko ditu eta, horrenbestez, urtean 11 tCO₂ gasen emisioa ekidingo da.

Eguzki panelak hornitu eta instalatzeko lanek *Ekilor Energías Renovables* enpresak egin ditu 45.430 eurotan.

Mekalki
S. Coop. **mekanizatuak**

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

ANE MERTZERIA



• Josteko zerak
• Lentzeria
• Umeen jantziak
Kale Barria, 54 OÑATI

Kale Zaharreko behe aldeko irisgarritasuna hobetzeko proiektua enkargatu du Udalak

Kale Zaharreko 44 eta 76 zenbakien arteko eremuko urbanizazioa berritu eta irisgarritasuna hobetzeko proiektuaren idazketa eta ondoren egingo diren lanen zuzendaritza esleitu dio Udalak A2B Arquitectos enpresari, 14.900 eurotan.

Iazko otsailean onartu zuen Udalak Kale Zaharra-Otadui Zuhaiztia eremuko irisgarritasun plan orokorra, A2B Arquitectos enpresak idatzia. Kale Zaharra eta Otadui Zuhaiztiaren gain, Lizaur kalea, Unibertsitate Etorbidea eta Aita Madina kalea ere barnebiltzen ditu planak, eta hainbat neurri edo esku-hartze aurreikusten dira bertan, oinezkoen segurtasuna hobetzeko, oztopo arkitektonikoak kentzeko, eta ibilgailuen zirkulazioa egokitzeko.



Plan osoa 9 fase ezberdinetan gauzatzea aurreikusten da, eta, orain, lehen faseari dagokion proiektua enkargatu du Udalak. Gogoratu, onartu berri diren 2026ko udal aurrekontuetan 335.000 euroko diru partida jasota dagoela irisgarritasun lanak egiteko.

Landa-bideetako sastrakak kentzeko besoa erosi du Udalak

Udal brigadak duen traktoreari lotuta, auzo-bide ertzetako sastrakak mozteko beso berria erostea erabaki du Udalak, orain arte erabili izan dena (2014an erosi zen) zahartuta dagoelako. Hala, besoak bete behar dituen baldintzak zehaztuz, besoa hornitu eta mantentzeko esleipen prozesua jarri du abian 58.080 euroko aurrekontuarekin. Urtarrilaren 5era arteko epea dago eskaintzak aurkezteko.



Olakuako parke berria



Amaitu dira Olakuako urmaela zenaren inguruak egokitzeko lanak. Ur hornidura sarea lurperatu, putzuaren oinarria hormigoiz estali eta anfiteatro itxurako egonleku mailakatuak egokitu dira bertan. Lanak osatzeko hainbat landaketa egingo dira inguruan. Urmaelaren ikurra zen zubia mantendu egin da eta aldameneko berdegune eta jolasgunearekin integratu da, pasabideak eratuz.



ELISA SALA MOZOS

Ikerlaria eta Gizarte Aholkularia

"Gaurko gizarteetan dugun bakardade sentimenduaren prebalentzia handiaren atzean ezkututzen diren kausei buruz hitz egingo dugu"

URTARRILAK 28, ASTEAZKENA
Kultur etxean, 18:00-19:30

Nahi ez den bakardadeari aurre egiteko eskualdeko udalek abian jarri duten *Debagoiena Ehuntzen* ekimenaren baitan, Elisa Sala Mozosen hitzaldia egongo da Oñatin urtarrilaren 28an. Ikerlaria eta gizarte aholkularia da Sala, eta urteak daramatza bakardadeari eta isolamendu sozialari aurre egiteko prozesu komunitarioak diseinatzeko eta praktikan jartzen.

Izan ere, bere ustez inportantea da ulertzea bakardadea eta komunitate sentimendua eskutik helduta doazela. Maila komunitario eta sozialean inoiz baino deskonektatuago bizi gara, eta, beraz, komunitatea sortzen hasi behar dugula dio. Eta horretarako pertenezia edo kide izatearen sentimendu batetik abiatu behar dugu, eta sentimendu hori eraikitzea inoiz baino konplexuagoa omen da gaur egungo gizarte anitzetan. Garbi du, hala ere, horixe dela bidea, komunitatetik bertatik lana egitea, eta elkarri laguntzeko sareak sendotzea lortzen denean, onurak ez direla soilik norbanakoen zat, gizarte osoarentzat baizik.



ARRIZABALAGA
Aroztegia



PAKITA
Altzariak



Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK



Ingelesko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiaitui Kortabarria
Irakaslea

Arantzazuko Ama, 3 behea
943 53 36 57

20560 OÑATI (Gipuzkoa)
4sgoiena@gmail.com

www.4sgoiena.com

EMAKUMEENTZAKO JABETZE ESKOLA

2026ko negu-udaberria

> Udaleko Berdintasun sailak Jabetze Eskolaren negu-udaberrirako egitaraua prest du. > Ohi bezala, askotariko tailer eta ikastaroak antolatu ditu. **Animatu eta parte hartu!**

• **Konektatu zure buruarekin eta hartu arnasa. Ikastaroa**

Itziar Alkortaren eskutik.

Euskaraz

urtarrilaren 17-24; otsailak 7 eta 28;
martxoak 7 eta 21

Astearteak 10:30-12:00

• **Emakumeak mugimenduan. Ikastaroa**

Oihana Vicenteren eskutik.

Euskaraz eta gaztelaniaz*

Urtarrilak 8 eta 22; Otsailak 5 eta 19; Martxoak 5 eta 26;
apirilak 16 eta 30; maiatzak 14 eta 28.
Ostegunak 17:30-19:00

• **Amatasunean bidelagun taldea**



Nahia Alkortaren eskutik.

Euskaraz eta gaztelaniaz*

Urtarrilak 13, 27; otsailak 10 eta 24;
martxoak 10; apirilak 21; maiatzak 5
eta 19. Astearteak 17:00-19:00

• **Gure baratzen burujabe. Ikastaroa**

Ane Gorosabel eta Nere

Aspiazuren eskutik.

Euskaraz eta gaztelaniaz*

Otsailak 25, martxoak 11,
apirilak 15, apirilak 25 eta
maiatzak 9

Asteazkenak 16:00-19:00 eta larunbatetan 9:00-12:00

• **Feminismoaren ertzetatik.**

Irakurle-taldea

Luciana Alfaroren eskutik.

Gaztelaniaz

Urtarrilak 14, otsailak 11, martxoak 11,
apirilak 8, maiatzak 6 eta maiatzak 16
Asteazkenak 18:00-20:00

• **Kakorratz lana, arimako korapiloak askatzeko**

Oihana Merinoren eskutik.



Euskaraz eta gaztelaniaz*

Urtarrilak 12 eta 2 ; Otsailak 9 eta 23;

Martxoak 9 eta 23; Apirilak 13 eta 27;

Maiatzak 11 eta 18; Ekainak 1 eta 15

Astelehenak, 17:00-19:00

• **Salsa batxata kuir ikastaroa**

Nerea Hernandoren eskutik

Euskaraz eta gaztelaniaz*

Urtarrilak 10, otsailak 7,

martxoak 14

Zapatuak, 17:00-19:00

*LGTBIQ+ pertsonen irekita.



• **Irrintzi ikastaroa.**

Isabel Kirzeren eskutik.

Euskaraz

Otsailak 6 (18:00-20:00)

• **Amatasuna eta sexualitatea. Tailerra.**

June Mendizabalen eskutik.

Euskaraz eta gaztelaniaz*

Urtarrilak 27 (17:00-19:00)

*Ama diren emakumeen zuzenduta.

• **Familiaren ongizate emozionala.**

Hitzaldia.

Oihana Centenoren eskutik.

Euskaraz eta gaztelaniaz*

Otsailak 10 (17:00-19:00)

*Herritar guztientzat.

• **Hilerokoa ezagutzen. Tailerra.**

June Mendizabalen eskutik.

Urtarrilak 27 (17:00-19:00)

*9-14 urte bitarteko neskei zuzenduta.



• **Amatasunak eta feminismoak tailerra.**

Nahia Alkortaren eskutik

Euskaraz eta gaztelaniaz*

Martxoak 10 (17:00-19:00)

• **'No en mi nombre: Islamofobia en nombre del feminismo'.**

Hitzaldia.

Hajar Samadiren eskutik.

Gaztelaniaz

Martxoak 11 (18:00)



*Herritar guztientzat.

• **Hariak, jostoratzak eta zauriak.**

Mireia Delgadoren eskutik

Ipuin kontalaria

euskaraz

Martxoak 24 (18:00)

*Herritar guztientzat.

• **Twerk ikastaroa**

euskaraz

Martxoak 27 (17:00-19:30)

*Neska gazteei zuzenduta.

• **Ama diren emakumeentzako arte-terapia tailerra**

Euskaraz eta gaztelaniaz*

Maiatzak 5 (17:00-19:00)

OHARRAK

Información en castellano:

www.oñati.eus

Gaztelaniaz * : ekintza hauek euskaraz izango dira eta gaztelaniaz ere jarraitzeko aukera eska daiteke, gutxienez, aste bateko aurrerapenarekin.

Hay opción a solicitar que los talleres sean también en castellano.

Ekintza guztietan haur zaintza zerbitzua eskatzeko aukera dago, gutxienez, aste bateko aurrerapenarekin.

Hay opción a solicitar cuidado de menores con una semana de antelación en todas las sesiones.

Izen-ematea urtarrilaren 15etik

25era. www.oñati.eus

Inscripciones del 15 de enero al 25.

Informazio gehiagorako:

berdintasuna@onati.eus

688 785 247

Atez ateko bilketa sistema edukiontziena baino %60 garestiagoa dela adierazi du Debagoienako EAJk

Bilketa sistemari buruzko eztabaida lasaia eta herritarren kontsulta irekitzeko unea iritsi dela diote jeltzaleek

Mankomunitatearen bilketa kontratu berriaren txosten tekniko eta ekonomikoak berrikusi ondoren, Debagoieneko EAJk ondorioztatu du Oñatiko eta Antzuolako atez ateko sistema gainerako udalerrietan erabiltzen den edukiontzi bidezko eredua baino "nabarmen garestiagoa" dela. "Atez atekoak urtean 820.000 euro eskatzen ditu soilik pertsonalean, eta edukiontzien sistemak, berriz, 450.000 euro. Egiturazko diferentzia hori ibilbide, ibilgailu eta eragiketa-denbora gehiagoren ondorio da", azaldu dute.

Zergadun bakoitzaren kostua aztertzen bada, aldea are argiagoa dela dio EAJk: atez ateko sistemak 125,62 euroko kostua du zergadun baliokide bakoitzeko, eta edukiontzien sistemak, aldiz, 78,31 eurokoa. "Praktikan, atez atekoa mantentzea %60 gehiago kostatzen da erabiltzaile bakoitzeko, eta Mankomunitateak gainkostu horiek udalerriguztiei aplikatzen badizkie ere, elkartasunaren printzipioa aplikatuz, emaitza 'kutsatzen duenak ordaindu egiten du' printzipio europarraren aurkakoa da", adierazi du EAJk.



MERKATARIAK, OSTALARIAK ETA INDUSTRIA SEKTOREA

Egoera, "bereziki kezagarria" da merkatarientzat, ostalarientzat eta industriarentzat, EAJk dioenez. "Egungo tarifaren ondorioz –atez ateko gainkostua barne–, Debagoieneko establezimendu batzuek 6.000 euro baino gehiago ordaintzen dituzte urtean, eta edukiontzi bidezko sistemak dituzten ondoko eskualdeetan, enpresa profil horiek bere kopuru nabarmen txikiagoak ordaintzen dituzte".

BILKETA SISTEMEN ARTEKO ALDERAKETA

Debagoieneko EAJk azaldu duenez, gaikako bilketa tasen

Debagoieneko
EAJko ordezkariak

Atez ateko sistemak 125,62 euroko kostua du zergadun bakoitzeko, eta edukiontzien sistemak 78,31 eurokoa



datuek erakusten dute ez dela sistema mota birziklatzea bermatzen duena: 2025ean, Beasainek, edukiontziekin %78ko birziklapen tasak lortu ditu, Oñatikoak (%74,34) eta Antzuolakoak (%77,29) baino handiagoak. "Erabakigarriena ez da erabilitako sistema, baizik eta herritarren inplikazioa, zerbitzuaren kalitatea eta azpiegiturak".

Sasietako Mankomunitateko datuek ere horixe bera erakusten dutela dio EAJk. "Han, gehienbat edukiontzietan oinarritutako sistemarekin, Beasainek %78 birziklatzen du, eta, aldiz, atez ateko bilketa daukan Zaldibiak %77. Beasainen herritarrentzako kostua nabarmen txikia da –etxe bakoitzak 139,70 euro ordaintzen du, batz beste–, eta Zaldibian 178,73 euro, ia 40 euro gehiago.

ONDORIOAK

Datu horiek bi ondorio argi uzten dituzte, jeltzaleen ustez. "Lehenengoa, birziklatze maila berdina edo hobea lor daitekeela sistema eraginkorrago, merkeago eta kostuen banaketa bidezkoago batekin. Eta, bigarrena, bilketa ereduari buruzko eztabaida lasaia eta herritarren kontsulta irekitzeko unea iritsi dela, bere garaian Bergaran, Aretxabaletan eta Eskoriatzan egin zen bezala. Herritarrek eskubidea dute erabakitzeke ea gehiago ordaintzen jarraitu nahi duten gaur egun emaitza hobeak ekartzen ez dituela frogatu den sistema batengatik, edo edukiontzi adimenduen eredu moderno baterantz aurrera egin nahi duten, Europarekin lerrokatuta eta kostuen banaketa ekitatiboarekin".

● OÑABIKE
est. 95



'Eskola Arrakasta' programa sendotzeko boluntarioak behar ditu Debagoieneko Gurutze Gorriak

> Zaurgarritasun egoeran dauden 8-12 urteko haurrei hezkuntza-ikaskuntzan eta garapen pertsonalean laguntzea da helburua

Bospasei urte daramatza Debagoieneko Gurutze Gorriak 'Eskola Arrakasta' programa eskaintzen. Baliabide faltagatik, hizkuntza gabeziagatik edo beste arrazoi batzuegatik ikasketetan zailtasunak dituzten 8-12 urteko neska-mutikoei laguntzen diete. Orain arte Bergaran eskaini dute zerbitzua, eta boluntario bila dabilta, proiektua sendotu eta beste herri batzuetara ere zabaltzeko. Elena Ibarrondo ekimenaren arduradunarekin berba egin dugu.



Noiz eta nola sortu zen 'Eskola Arrakasta' programa?

2019an hasi ginen 'Eskola Arrakasta' programa eskaintzen, Bergaran, bertako udalaren laguntzarekin, eskola-laguntza eta orientazioa emateko helburuekin. Debagoieneko Gurutze Gorriko boluntarioek jarri zuten abian proiektua, ikaskuntza-prozesuan zailtasunak zituzten haurrei laguntza emateko zuten kezka eta gogoak bultzatuta.

Zein da programaren helburua?

Lehen Hezkuntzako bigarren mailatik seigarrenera arteko hezkuntza-premiak dituzten haurrei (8-12 urte) laguntzea. Pobrezia eta bazterketa arriskuan dauden familietako eta eskola-prozesuan zailtasunak dituzten haurrei zuzenduta dago.

Zein izaten da dinamika?

Astean behingo saioak izaten dira, ostegun arratsaldetan (17:30-19:00). Lehenengo askari edo merienda banatzen diegu, eta tarte hori aprobetxatzen dugu astea nola joan den kontatzeko, eta beraiekin berba egiteko. Gero, etxeko lanak edo boluntarioek prestatutako fitxak egiten

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

dituzte. Haurren irakasleekin harremanetan gaude, eta badakigu zein arlo indartzea komeni zaion haur bakoitzari. Lana amaitu ondoren, azken minutuak jolasteko aprobetxatzen ditugu beti.

Zaugarritasun egoeran bizi diren haurrak dira, hizkuntza-zailtasunak ere badituzte... Hezkuntza-laguntza ez ezik, emozionalki ere lagungarria da haur horientzat, ezta?

Bai, haurrek asko eskertzen dute beren espazioa izatea. Beraiek dira protagonistak eta badakite boluntarioak laguntzeko dardela bertan. Talde txikiekin egiten dugu lan eta, beraz, arreta oso personalizatua da. Gainera, familiariekin ere lan egiten da, tratua oso estua da.

Oraingoz, Bergaran daukazeu martxan programa. Beste herri batzuetara zabaltzeko asmorik?

Proiektua ezagutzera eman nahi dugu, beste udalerri batzuetan martxan jarri ahal izateko. Gaur egun, boluntario gehiagok izena ematea gustatuko litzaiuke, lantaldea eta proiektua bera sendotzeko eta, ahal bada, beste herri batzuetara ere zabaltzeko.

Baldintzarik bete behar al dute boluntarioek?

Inportantea da euskara jakitea, hurrei hizkuntzarekin lagundu ahal izateko, baina, gainerakoan ez da formazio berezirik eskatzen; hurrei laguntzeko gogoia edukitzea, besterik ez. Interesa daukanak Debagoieneko Gurutze Gorrira deitu eta eskola-arrakasta proiektuaz galde dezake (943 76 55 76 / altodeba@cruzroja.es).

BOLUNTARIOTZA LANA

Gurutze Gorriak Debagoienean egiten duen jarduera guztiaren aktibo nagusia

Debagoieneko Gurutze Gorriak 41 urteko ibilbidea egin du, jada. Hasera batean, sorospen eta larrialdi zerbitzuengatik ezaguna bazen ere, denborarekin bere jarduera eraldatzen joan da, gure bailarak dituen behar berrietara egokituz. Gaur egun ere jarraitzen du larrialdi eta sorospen zerbitzuak ematen, baina esku-hartze soziala gero eta indar eta protagonismo handiagoa hartzen ari da. "Gero eta jende gehiago detektatzen ari gara, arrazoi ezberdinengatik zailtasunak dituztenak eguneroko behar eta permiei aurre egiteko, eta garbi daukagu 'auzo-laguntzako' lankidetzeta eta elkartasun sareak gero eta beharrekoagoak direla, aukera berdintasun handiagoa lortzeko", adierazi du Elena Ibarrodok.

Aipatu dugun 'Eskola Arrakasta' da Gurutze Gorriak esku artean dituen gizarte-ekintzako proiektuetako bat, baina beste batzuk ere baditu:

-Oinarrizko premiak: zaugarritasun egoeran dauden familiei oinarrizko premietan laguntzea: elikagai-bonuak, argia eta gasa ordaintzen laguntzea...

-Atxikipen terapeutikoa. Bakardadean

dauden pertsona nagusiei tratamendu medikoak egoki eramaten laguntzea...

-Pertsona nagusiak. Egoitzetan bizi diren adinekoekin txangoak egitea...

-Laguntza-produktuak. Gurpi-aulkiak, makuluak, taka-takak, garabiak... adineko eta desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-produktuen mailegu zerbitzua.

-Haurren arreta. 'Eskola materiala', 'Eskola arrakasta' eta 'Jostailu Hezitzailea' bezalako programak.

-Hezkuntza. Elikadura kontzientea, osasun emozionala, lehen sorospenak eta beste arlo batzuetako prestakuntza jarduerak.

LARRIALDIAK ETA SOROSPENA

Esku-hartze sozialeko proiektuez gain, prebentzio zerbitzuak ere eskaintzen ditu Gurutze Gorriak, eta Larrialdiei Aurre Egiteko Berehalako Erantzun Taldea ere badu, desagertutako pertsonen bilaketan eta ebakuazioetan trebatuta dagoena. Gaur egun 89 boluntarioz osatutako boluntario taldea dauka Debagoieneko Gurutze Gorriak, eta, dudarik gabe, erakundeak daukan gaitasun operatibo handia ahalbidetzen duen aktibo nagusia dira.

'Jostailu Hezitzailea' kanpaina abian



Urtero bezala, Gabonak hurbiltzearekin batera, 'Jostailu Hezitzailea' kanpaina jarri du abian Debagoieneko Gurutze Gorriak helburu honekin: jolasak haurren garapenean duen garrantzia kontuan hartuta, kalteberatasun egoeran dauden familietako haurrak jostailu berririk gabe ez geratzea Gabonetan. Aurtengo, Debagoienean bizi diren 137 familiatako 12 urtetik beherako 255 txikik jaso dituzte opariak.

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERIOAK, LUR FLDTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...

DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAKO
OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77

Mikel Egaña Urrutia

Aseguruak

Eskatu aurrekontua konpromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

GABONETAKO XVIII. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Amalur-ena, politena

Amalur belar-dendak irabazi du aurten Gabonetako erakusleho lehiaketa. Berak jaso du epaimahaiaren lehen saria (500€). Bigarrena (300€) **Andrea Azkoaga** Interioristak eraman du, eta hirugarrena (200€) **Kimu-Urtxin** lora dendak. Bestalde, herritarren botoz erabakitako saria (500€) **Kimu-Urtxin**entzat izan da, boto guztien (897) %32rekin, eta Haurren saria (300€) **Txokolateixak** jaso du boto guztien (497) %26rekin,



Kimu-Urtxinek jaso du herritarren saria, eta **Txokolateixak** haurrena



Tere Zubiak jaso du aurten Pake Leku saria



Tere Zubia, senideez inguraturik

Tere Zubia Uriartek jaso du aurten Pake Leku elkartearen aitortza-omenaldia. Emakume oso dinamikoa da Tere, eta jubilatuen Ikusi-Makusi antzerki taldearen sortzaile eta aktiboan jarraitzen duten bi aktoreetako bat da egun. Horrez gain, Pake Lekuko tailerretan (hauri-lanak, pintura...) eta irteera edo bidaietan ere sarri parte hartu ohi du.



Gotzon Telleriaren aldeko ekitaldia

Oñatiko SAREk deituta, 'Ezin da gehiago luzatu' zioen pankartaren eta Gotzonen falta irudikatzen zuen gurgildun aulki hutsaren atzean dozenaka herritar batu ziren abenduaren 20an, Zaballan preso dagoen Gotzon Telleriaren askatasuna aldarrikatzeko. "Injustiziarekin bukatu nahi dugu. Ateak irekitzeko elkarbizitzari, elkarriketari eta eztabaida osasuntsuari", adierazi zuten. Gogoratu, Telleriak 10 urte daramatzala preso, 70 urte dituela eta ELA gaixotasun sendaezina daukala. "Horrelako gaitzak eta kartzela bateraezinak dira. Gotzon ahalik eta azkarren atera behar dugu kalera, osasuna gehiago okertu aurretik", aldarrikatu zuten.

URTARRILAREN 10EAN BILBORA

Urtarrilaren 10ean 'Ezin da gehiago luzatu!' lelopean, euskal presoaren askatasuna eskatzeko Bilbon egingo den manifestaziora joateko deia luzatu du SAREk. Dagoeneko salgai daude autobuserako tiketak Arrano tabernan, egunero, eta Gure Esku-ren lokalean urtarrilaren 2, 5, 7, 8 eta 9an, goizez (11:00-13:00) eta arratsaldez (17:30-19:30). Goizeko autobusak 10:30etan irtenango dira Enpresagintza fakultetetik, eta arratsaldekoak 15:00etan.

PINTURAS URBIA MARGOAK
Ultzeqin kalea, 3 - Behea B / 652 710 837

ARANBURU ALTZARIAK
Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK
LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

OÑATIAK IZATEKO 11 MODU DAUDELAKO...

...elkar hezi



INFO GEHIAGO/ BIDEA
IKUSI
NAS INFO/ WEB VIDEO



ESKATU BISITARAKO
HITZORDUA*
RESERVA TU VOUTA*

*zatoz Elkar Hezi ezagutzera
bakarka edo taldean



idazkaritza@elkarhezi.eus
943 71 82 72 / 688 621 195
www.elkarhezi.eus



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariako erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Iñigo Arregi

Diseinua eta Maketazioa:

Iñigo Arregi eta Jabier Erostarbe (azala)

Kolaboratzaileak:

Roberto Altuna, Gaztelekua Natur Eskola eta udaleko Berdintasun saila

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

Faxismoaren eta estatuen autoritarismoaren aurka urtarilak 31 Bilbora

Roberto Posada, GKSko militantea

Ukazina da gure kaleetan ematen ari den faxismoaren eta ideia erreakzionarioen gorakada, geroz eta gazte gehiagok irentsi dute gorroto irrazionalaren amua eta ultra eskuina geroz eta lasaiago dabil gure herrietan zehar.

Gorakada honen erakusle garbiak dira urriaren 12an Gasteizen izan genuen Falangearen bisita, Arbasoen mendekua moduko talde faxista euskaldunen sorrera edo gure herrian agertu den propaganda faxista (hala nola, esbastika batzuk Ugarkalde inguruan edo Revuelta talde faxistaren pegatinak kale zaharrean zehar).

Guzti honen bitartean, polizia. Polizia, faxistak eskutik helduta dituela, hauei aurre egiteko antolatu diren gazte langileak jipoitzen, Donostian 100 lagunetik gora kale gorrian uzten edota Palestinar herria jasaten ari den genozidioaren aurka protestan dabiltzanak jazartzen.

Argi ikusi da historiako gobernu aurrerakoiak ere ezin izan duela faxismoaren hazkundera gelditu eta beste guztien modura, autoritarismoz eta esku gogorrez kolpatzen dituela haien joku arauetatik ateratzen direnak, honen aurrean, gazte langileoi antolatzea eta kaleak hartzea besterik ez zaigu gelditzen. Urtarrilaren 31an Bilbon ikusiko dugu elkar.

» OHAR ETA DEIALDIAK «

KORRIKA-2026

Oñatiko batzordea eratzeko lehen bilera

Jakingo duzueenez, aurten KORRIKAZ gozatzeko aukera izango dugu berriz ere, martxoaren 19tik 24ra bitartean. Hori posible izan dadin, ehunka pertsonak lan itzela egiten dute aurretiaz. Era asko daude KORRIKari laguntzeko, eta horietako bat da herriko antolakuntza batzordeko kide izatea. Horretarako, urtarilaren 26an egingo da lehen bilera (kultur etxean, 17:30etan), eta benetan pozgarria izango litzateke zu bertan egotea. Herrian zer egingo den ezagutzeko modua izango duzu, eta, nahi izanez gero, bestelako ekitaldiak proposatzeko aukera ere bai. Gero erabakiko duzu nola edo zertan lagundu dezakezun. Animatu!!!

1976an jaioetakoen kinttadia

1976an jaioetakoen kinttadia ospatuko da uztailaren 11n. Bazkaria Arantzazuko Hospederixan izango da eta bertaratzeko autobusa egongo da. Izen-emate epea, urtarilaren 31. Bazkariaren kostua, 90€ eta ordainketa Laboral Kutxako ES46 30350170521700039255 kontuan. Izena ematerakoan izena eta bi abizenak idatzi behar dira. Animatu eta etorri lagun artean egun zoragarria pasatzera!. Harremanetarako helbidea: kinttadia1976@gmail.com



Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuen fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



Kaixo, musikazaleok!

2025/26 kontzertu denboraldiaren lehen zatia amaitu dugun honetan, zeinetan Olaia Inziarte, Sukena, Indabe, Brigade loco, Laino beltzak, Malko, Goazen eta Janus Lester egon diren, bagatoz bigarrena aurkeztera. Datozen hilabeteetan ere punta-puntako artistak egingo digute bisita:

Urtea hasteko, Peru Altube Kazalis arrasatearraren **Neguko izarrak** proiektua izango dugu ikusgai urtarrilaren 11n. Bateria ikasketetako gradu amaierako lana aurkezteko prestatutako kontzertua eskainiko digu, *matinée* ordutegian, hau da, eguerdiko 12:30ean. Peru musikari ezaguna da, bai oñatiarrontzat (askotan izan baitugu bertan) eta baita Euskal herri osoan ere, Huntza eta The Potes taldeetan jardun duelako, batez ere. Emanaldi honetan, jazz eta euskal kultura uztartuko dira.

Urtarrileko aldapari agur esateko, hilaren 31n, **Lukiek** talde mungiarra eta **Burutik** iruindarrak izango ditugu eszenatokia partekatzen. Lehenek, #3, beraien estudioko hirugarren lana aurkezten dihardute eta bigarrenak berriz, *Ipuinak* izeneko lan luzearen aurkezpen biran murgilduta daude, eta Oñatin beraien hiru edo lau ahotsen arteko jolasak eta armonia konplexuez osatutako *pop-rocka* erakustera etorriko dira.

Gaztelekuko urteroko eskaintzan ez da bertsolaritzarekin lotutako ikuskizunik falta izaten, eta aurten ere izango dugu proposamen interesgarri bat: **1TZ4L1 3T4 P1ZTU**. Otsailaren 13an, inauteri bezperan, zuzeneko musika elektronikoa eta bat-bateko bertsolaritzaren arteko elkarlana abiapuntu duen planteamendu musikal berri honetaz gozatzeko aukera izango dugu. Gainera, Aitor Tatiegi oñatiarra izango dugu oholztan, proiektuaren parte baita.

Martxoaren 7an, **Pinpilinpussies** eta **Frustration** taldeak etorriko dira. Lehenak Bartzelonatik datoz (nahiz eta kideetako bat euskalduna den), *post-punk* jarreradun *garaje-rock* taldea direla diote. Frustration berriz, Paristik datorren *post-punk* taldea da, Europa guztian zehar zaleak bereganatu eta aretoak betetzen dabilena.

Belharra 2012. urtean sortu zen Howdy Bluegrass taldearen izen berria da. Jorratzen duten estiloaren bereizgarri dira ahots armoniak eta hainbat musika tresnaren (mandolina, kontrabaxua, banjoa...) artean sortzen diren 'elkarrizketa' zein erritmo biziak. Hasiera batetan ingelesez sortuak izan ziren abestien euskarazko bertsioak argitaratu zituzten. Egun, euskaraz osatua dute erreperitorio osoa. Martxoaren 22an etorriko dira.

Musikaz harago ere izango da zertaz gozatua. Apirilaren 19an, **Supituki** ikuskizuna izango dugu. Euren jardunaren deskribapen ezin hobea da, istorioak ere bat-batean, ustekabeen, zirt batean sortzen baitira. Ikusleak sorkuntzaren funtsezko parte bihurtzen dira, istorioak beraiek idatzitako esaldietatik abiatuta sortzen dira eta. Umorea, sormena eta benetako magia eszenikoa bete-betean.

OÑATI dabilen herria		
VERDURI HALL - GAZTELEKUA		
2026ko urtarrila-apirila		
	NEGUKO IZARRAK	Urtarrilak 11, Igandea 12:30 Aurkez / Biletak 10 €
	LUKIEK + BURUTIK	Urtarrilak 31, Larunbata 22:00 Aurkez / Biletak 10 €
	1TZ4L1 3T4 P1ZTU (Bertso musikak)	Otsailak 13, ostirala 19:30 Aurkez / Biletak 10 €
	PINPILINPUSSIES + FRUSTRATION	Martxoak 7, larunbata 22:00 Aurkez / Biletak 10 €
	BELHARRA	Martxoak 22, Igandea 12:30 Aurkez / Biletak 10 €
	SUPITUKI (Inprimatuak salgai)	Apirilak 19, Igandea 12:30 Aurkez / Biletak 8 €
Sarrerak www.onati.eus webgunean eta Txokolateixan abenduaren 20tik aurrera		

**SARRERAK
SALGAI**
Sarrerak dagoeneko salgai daude, udalaren webgunean eta txokolaterixan

» UDALEKO GAZTERIA BATZORDEAREN ZERBITZU BERRIA

Gazte aholkularitza Psikologikoa

- 16 eta 30 urte arteko gazteei zuzendutako zerbitzua. Dohainik.
- San Juan kaleko 5 zenbakidun lokalean
- Ostegunero, 16:00 -18:00 (aurrez txanda hartuta)
- 688 815 351 / gazteaholkularitza@onati.eus

*Eskatu hitzordua,
zerbitzua behar baduzu*

Gabonetako etenaldira etxeko lanak eginda

> Gizonezkoen futbol talde nagusia lidertzan da Gorengo mailan > Mutilen saskibaloi talde nagusia ere igoera postuetan dago > Emakumezkoen eskubaloi talde nagusia lan bikaina egiten ari da Euskadiko txapelketan

FUTBOLA Etxeko lanak ondo baino hobeto eginda iritsi da gizonezkoen futbol talde nagusia Gabonetako etenaldira. 11 partidu irabazi, 1 berdindu eta bakarra galduta, Gorengo Mailako lidertzan da Unai Garaik zuzentzen duen taldea, iaz galdutako kategoria berreskuratzeko bidean, gauzak okertzen ez badira.

Ilusioa omen da orain arteko errendimendu bikainaren gako nagusia. "Iaztik hona bloke sendo batek utzi du taldea, baina Erregionaleko bigarren taldetik eta gazte mailatik igo diren jokalariek gazteek duten ilusio handiak eman digu indarra", dio Garaik. "Nik neuk ere, eta inguruan ditudan laguntzaileek ere, ilusio handiz hartu dugu denboraldia, eta hori igarten da". Orain arte egindako lanarekin oso gustura dago, eta, batez ere, galdu edo berdindutako partiduen ostean, burua jaso eta are indar handiagoz entrenatzeko taldeak erakutsi duen gogoia eta motibazioa jartzen du balioan.

Oraindik, baina, ez du igoeraz berba egin gura. "Orain arteko moduan jarraitzea da nire helburu bakarra, eta lortzen badugu, horren ondorioa izango da igoera".

DEBAGOIENA 'A', GORENGO ERREGIONAL MAILAN

Oñati, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako jokalariz osatutako Debagoiena Bailara taldeak iaz lortu zuen Gorengo Erregionalerako igoetzea, eta mailari eustea da lehen helburua. "Iazko jokalariek gehienek jarraitzen dute, eta gero eta hobeto jokatzen ari gara. Ez dut uste arazorik izango dugunik kategoriari eusteko. Progresio horrekin jarraitu eta, poliki poliki, emakumezkoen futbol egitura sendotzea da helburua. Ildo horretan, Gorengo mailako Debagoiena 'B' taldea sortu izana ere oso lagungarria da, jarraipena bermatzeko", dio Aitor Guridi entrenatzaileak. 'A' taldean Aloña Mendiko 6 jokalaririk ari dira, eta bigarren taldean 14.



» **UNAI GARAI** / Gorengo mailako futbol taldeko entrenatzailea



■ Ez dut nik igoera konturik aipatuko. Orain arteko mailan jarraitzea da nire helburu bakarra, oraingoz. Hori lortzen badugu, horren ondorioa izango da igoera.



Debagoiena 'A' taldean 6 oñatiar ari dira. Argazkian daude Maialen Txintxurreta, Uxue Igartua, Uxue Ugalde eta Elia Remesal. Naroa Moia, Leire Guridi eta Maren Etxezarreta falta dira.

» **AITOR GURIDI** / Gorengo Erregionaleko nesken taldeko entrenatzailea



■ Iaz lortu genuen Erregional mailara igoetzea eta mailari eustea da lehen helburua, baina ez dut uste arazorik izango dugunik, gero eta hobeto jokatzen ari gara eta.

SASKIBALOIA GIPUZKOAKO TXAPELKETA HELBURU

Lan bikaina egiten ari da Aitor Ugartek gidatzen duen Biotz-Aloña Mendi taldea. Lehen faseko liga amaitzeko hiru jardunaldiren faltan, bere multzoko 2. tokian dago, 9 partidu irabazi eta 2 galduta, eta igoera faserako txartela poltsikoan. Baina liga amaitzeko geratzen diren partiduak oso inportanteak dira, igoera faseran sartzeko aurkari zuzenen aurka direlako eta emaitza horiek hurrengo fasera eramaten direlako.

Igoera fasean beste multzoko lehen lau sailkatuen aurka lehiatuko da Aloña, eta igoera faseko zortzi taldeetatik lau onenak sailkatuko dira lauko finalera. Estatistikek diote Aloña dela talderik onena erasoan, baina entrenatzaileak defentsako lanean jartzen du azpimarra, horrek ematen dielako gero trantsizio azkarrak egiteko aukera. "Taldea sendoa daukagu eta lehen helburua *Final Four*-era sailkatzea izango da. Gero, partidu bakarrera, edozeini irabazteko gai gara", dio Aitor Ugarte entrenatzaileak.

ESKUBALOIA EUSKADIKO LIGAN AURPEGIA EMATEN

Lan bikaina egiten ari da Construcciones Ugarte-Aloña Mendi senior mailako nesken taldea Euskal Ligan. Iaz lortu zuten mailaz igotzea, eta taldea oso gaztea dela kontuan izanda -23 urte azpikoak dira denak- uste baino maila hobea ematen ari dira, Pablo Garcia entrenatzailearen gidaritzapean; sailkapeneko bosgarren tokian daude, 6 partidu irabazi eta 3 galduta. "Orain arteko balorazioa oso positiboa da", adierazi digu Garciak. "Dinamika asko aldatu ditugu, bai entrenatzeko eran, bai jokatzeko moduan ere, eta taldea oso ondo erantzuten ari da. Dena den, sailkapena bera baino, helburua da emakumeen eskubaloia hazten joatea, taldea oso gaztea delako. Jokalariak ez ezik, entrenatzaile talde polita osatzen ari gara eta, gainera, zaletuek ere erantzuten dute. Beraz pozik gaude".



» **AITOR UGARTE** /
Biotz-Aloña Mendi taldeko
entrenatzailea



Talde oso sendoa daukagu. Lehen helburua igoerako lauko finalerako sailkatzea da, eta, gero, partidu bakarrera, edozeini irabazteko gai garela uste dut.



» **PABLO GARCIA** / Ugarte Eraikuntzak-Aloña Mendiko entrenatzailea



Haseran uste baino emaitza hobeak lortzen ari gara, kontuan hartuta taldea oso gaztea dela; dena den, emaitzak baino, helburu nagusia da emakumeen eskubaloia sendotzen joatea.

 **COINBROKER**
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA
943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP
OINATI@COINBROKER.EUS



Bidasoak eta Arandak, Asobal-eko taldeek, Zubikoan jokatu dute

ESKUBALOIA Urtarrilaren 31n Asobal mailako Irudek-Bidasoa eta Club Deportivo Aranda taldeek lagun arteko partidua jokatu dute Zubikoa kiroldegian (18:00). Partidu honekin, Aloña Mendiko eskubaloiz sailak 2026an ospatuko duen 50. urteurrenari hasiera emango zaio. Bestalde, Euskal Federazioak abenduaren 26an ospatu zuen galan aipamen berezia egin zion Aloñak urtero antolatzen duen Korpus txapelketari.



Urteko lehen mendi irteera Bizkaiaiko kostaldera - GR 123



Elantxobe eta Ea-ko hondartza

MENDI IRTEERA Elantxobe - Ibarrangelu - Natxitua - Ea eta Ispaster. Horixe da Aloña Mendiko urtarilerako antolatutako duen mendi ibilaldia Bizkaia bira ematen dion GR-123 bidean zehar (15,5 km / 650m+ / 5-6 ordu). Leku zoragarriak ikusteko aukera egongo da. Irteerak ez du batere zailtasunik. Amaieran, urteko lehen irteeran egin ohi den legez, bazkaria egingo dute Lekeition. **Urtarrilaren 18an** izango da irteera. Izena emateko epea, **urtarrilak 8-15** (alonomendi.mendi@gmail.com). Irteera goizeko 7etan postetxe parean.

MENDIKO ARGAZKIAK HOTZ-OÑATIRENTZAT



Aloña Mendiko mendi sailak azaroan antolatu zuen Mendi Astean Aritz Gordo Arrasateko argazkilariaren irudiz osatutako erakusketak antolatu zuen. Erakusketak bukatuta, Aritzen onspenarekin, argazkiak Hotz-Oñati elkartearen esku geratu dira, salgai. Abenduaren 14ko elkartasun azokan egin zen argazki-ematea, eta Hotz-Oñati hurrengo agerraldietan ere eskuragai egongo dira.

Irizar eta Cueva Gipuzkoako txapelkun



ZIKLO KROSA Ziklo kros denboraldi bikaina egiten ari dira gure txirrindulariak eta, hala, abenduaren 20an Atauen jokaturako Gipuzkoako txapelketan gure bi ordezkari podiumeko goreneko koskan ikusi genituen; alde batetik Aimar Irizar (Egaralur - Madalena Gasolindegia) kadete mailan, eta Unai Cueva (EKD Eibar) Open kategorian. Azpimarratzekoa, baita ere, Aitor Murguzurrek lortutakohirugarren postau junior mailan. Gainera, astebete lehenago jokatu zen Gorlizeko proban ere garaipena lortu zuen Irizarrek, eta bigarren helmugaratu zen Murguzur. Eta abenduaren 7an jokatu zen Zornotzako proban Cueva oñatiarra bigarren sailkatu zen Aitor Hernandez irabazlearengandik 37 segundora.

Aloñako Igoerarako izen-ematea urtarilaren 17an irekiko da

MENDI LASTERKETAK Urtarrilaren 17an, 10:00etan, irekiko da apirilaren 26an jokatu den XXI. Aloñako Igoeran parte hartzeko izen-ematea. Urtero lez, 80 dortsal gordeko dira oñatirrentzat, baina aurten, berritasun moduan, oñatirrentzako dortsalak ere zozketa bidez banatuko dira. Dorsal gabe geratzen diren herriarrak zozketa orokorrera igaroko dira automatikoki. Zozketako emaitzak urtarilaren 23an argitaratuko dira web orrian (aloinakoigoera.eus).

Eñaut Arriaran, Gipuzkoako hirugarrena

KROSA Eñaut Arriaran Aloña Mendiko korrikalari gaztea hirugarren sailkatu zen abenduaren 7an Ordizian jokaturako infantil mailako Gipuzkoako txapelketan. Nesken lasterketan Itziar Murgiondo izan zen gure ordezkari onena, 9. postuan.

San Silbestre lasterketa, urtea agurtzeko

ATLETISMOA Urteroko ohiturari jarraituz, San Silbestre lasterketa jokatu da abenduaren 31n, Antxintxiketan kirol elkarteak antolatuta, 7 km.-ko ibilbidean, plazan abiatu eta amaituta. Helduen lasterketa 16:30etan hasiko da. Izen-ematea (5€) 16:00ak arte plazan. Aurretik, 16:00etan, gztetxoen lasterketak jokatu dira Foruen plazan bertan.



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

“ZEREN ZAIN ZAUDE AURREZTEN HASTEKO?”

- ZUNTZA 500Mb
- + 2 MUGIKOR-LINEA
- + 50 GB PARTEKATZEKO

34,90€/HILEAN
BEZA barne

Zatoz LIZKER INFORMATIKA
dendara, kontrata ezazu
zuntza + mugikor linea bat eta
aukeratu zuretzat opari hau



LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TLF: 943 090 600



(BEZA barne). Eta aukeratu bi opari hauen artean: aire bidezko frijigailua edo DGTk homologatutako baliza (2026ko urtariletik aurrera derrigorrezkoa izango da). Urtarrilaren 1etik urtarilaren 31ra, eskaintzan kontratua baduzu: 500 Mb-eko zuntza + 2 mugikor-linea, del mugagabeekin eta partekatzeko 50 GB-rekin, hilean 34,90 €. Instalazioan 229,90 €-ko deskontua, 3 hilabeteko iraupen-konpromisoarekin. 5G abiadura, estaldura eta 5G terminalera lotuta. Existentziak amaitu arte. Ikusi gainerako baldintzak hemen: www.masmovil.es

MASMOVIL

AURREZTU, ETA KITO

Vienako doinuak, urteari ekiteko

> Musika Bandak Vienan ezagun egin ziren martxa, polka eta valsak eskainiko ditu **urtarrilaren 6an** > Aloña Mendiko gimnasia erritmikako kideek ere parte hartuko dute



Ospetsua da Vienako Orkestra Filarmonikoak urteberri egunean eman ohi duen kontzertua, bada, aurten, Oñatin bertan ere Vienako doinu eta erritmo klasikoak izango dira protagonista Musika Bandak urtarrilaren 6an eskainiko duen **'Vienako Emozioak'** kontzertuan. Vienako musika tradizioaren bihotzera eramango gaitu Aitor Biain Bidartek zuzentzen duen taldeak, Austriako hiriburuan sortu edo ezagun egin ziren martxak, polkak eta valsak ardatz hartuta.

Izaera eta estilo desberdinetako obrak interpretatuko ditu bandak. Martxa solemne eta energetikoak (*Wellington march*, *Vivat Patria*), Johann Strauss-en (aita eta seme) polka eta vals ezagunek (*Tritsch-Tratsch Polka*, *Annen Polka*, *Danubio Urdina*) eta izaera liriko zein dramatiko piezek (*La Gazza Ladra obertura*, *Waltz n°11*) goxatuko dituzte gure belarriak.

Johann Strauss aita-semeen
Danubio Urdina eta beste
obra ezagun batzeuk
entzuteko aukera egongo da

Dotorezia, erritmoa eta emozioa uztartzen dituen kontzertua izango da, 50 bat minutuko programa bizi eta askotarikoa. Gabonei amaiera eman eta urte berriari musika ederrez ekiteko proposamen bikaina.

Kontzertua **Zubikoa pilotalekuan** izango da, **13:00etan**. Sarrerak (3€) Txokolateixan edo www.oñati.eus webgunean eskura daitezke. Aurretik, kontzertu egunetan egin ohi duen moduan, kalejira egingo du musika bandak 11:00etan.

MUSIKA ETA DANTZA

Urtarrilaren 6ko emanaldia berezia izango da, Aloña Mendiko Gimnasia Erritmikako ikasleek ere parte hartuko dutelako. Lide Osinagak prestatutako koreografiak dantzatzeko dituzte, bandaren melodiei mugimendua jarritz. Bat egingo dute, beraz, diziplina artistiko ezberdinek, publikoaren begi-belarriak gozaraziz.

Ganbara Abesbatzak bigarren saria lortu du Binissalemen

Abenduaren 6tik 8ra ospatu zen Binissalemen (Mallorka) IV. Abesbatzen Lehiaketako bigarren saria lortu zuen Ganbara Abesbatzak. Oso pozik itzuli ziren sariarekin eta, bereziki, egindako lanarekin. "Lan oso ona egin dugula azpimarratu du epaimahaiak. Programa exigentea eraman dugula, eta indar handiko eta kolore bereziko abesbatza garelako esan digute", adierazi zuen Aitor Biain zuzendariak. Lehen saria Torreviejako *Coro Sinfonia*-rentzat izan zen.

'Erasmus+' aitortza Haritz Bisquert Oñati BHIko ikaslearentzat

Oñatiko BHIko ikasle den Haritz Bisquertek SEPIE (Servicio Español para la Internacionalización de la Educación) erakundearen aitortza jaso du Erasmus+ programan egindako ibilbide bikainagatik. Espainia osoan Lanbide Heziketako 5 ikasle soilik jasotzen duten aitortza da eta Oñatiko BHIko ikas komunitate osoak zorionik beroenak eman nahi dizkio.



Haritz, ikastetxeko zuzendaritza taldearekin

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati


MIREN UGARTE
Fisioterapia

Etkez-etxeko tratamendua:

- Neuroerreabilitazioa
- Heldu nagusiak
- Traumatologia

Arreta pertsonalizatua eta eguneroko beharretara egokitua
T. 609 589 843 · miren.fisioterapia@gmail.com

'Marmotarena' ipuin ilustratua argitaratu du Felipe Uriartek



Mendia da Felipe Uriarteren benetako pasioa, baina idazteko zaletasuna ere oso berea eta aspaldikoa du. Horren adibide, Everestera egindako lehen bi euskal espedizioen bizipenak kontatuz 1981ean idatzi zuen 'Buru ilun lurruntsua. Euskaldunak Everest mendian' liburua. Beste zenbait komunikabidetan ere (Pyrenaica, Egin, Berria...) idatzi izan du maiz, eta, tarteka, bertsoak eta istorioak sortzea ere oso gustuko du.

Azken urteotan, Oñatiko udal liburutegiak antolatutako Idazketa Lantegian ere badihardu, Jimu Iturralde idazlearen gidaritzapean, eta, giro horretan, idazteko eta sortzeko grina berpiztu zaiola esan liteke. Eta horren emaitzetako bat da plazaratu berri duen **Marmotarena** ipuin ilustratua. "Duela bi urte, Pirineotan nenbilela, halako batean, ttak, makila xulo batean sartu nuen. Marmota edo muxar baten xuloa zen, eta hor hasi zen guztia. Aterpera iritsi eta garagardo bat hartzen nuen bitartean idatzi nuen istorioaren zirriborroa, gero, poliki-poliki findu dudana". Mendira, gaua igarotzera doazen aita eta bi alaba txikiren istorioa kontatzen du. Neskatiletako batek marmota bat aurkituko du eta haren adiskide egingo da. Mendian bizi den eta mendiaz asko dakien marmota bat da. Protagonista umea bada ere, ez da soilik haurrentzako liburu bat. "Mendiak nola, literaturak ere adin guztietako pertsonak onartzen ditu. Halaxe ikusten dut nik, eta hori islatzen saiatu naiz". Ipuina Irene San Sebastian ilustratzailearen marrazki ederrez osatua dago. Herriko liburu dendetan eskura daiteke.

Ia 200 lagun ari dira eskulan ikastaroetan

Harrera bikaina izan dute aurtengo udaleko kultura sailak antolatzen dituen eskulan ikastaroek. Tamalez, ia 40 lagunek itxaron zerrendan geratu behar izan zuten, baina, hala ere, 178 lagunek, haur eta helduk, dihardute beraien sormena lantzen.

Pintura da, aurtengo izen-emate gehien izan duen tailerra. Gaztetxoetan eskaini zirenak baino talde bat gehiago osatu behar izan da, eta, hala, 73 neska-mutiko ari dira zazpi taldetan banatuta, Naroa Olalde irakaslearekin. Helduetan (+18 urte) bi talde daude eta 29 gizon-emakume ari dira Ainhoa Cabero irakaslearen laguntzarekin.

Jasone Agirrek ematen dituen eskulan dekoratiboetako tailerretan 20 neska-mutikok eta 14 nagusik dihardute, askotariko altzari, poltsa eta bestelakoak dekoratzen, eta Zeramikan 21 heldu eta 12 neska-mutiko ari dira buztinari bizia eman eta dekoratzen June Larzabal irakaslearen aholkuak jarraituz.



Baso-igel gorriaren arrautzak

Neguan sartzearekin batera, mendialdeko pista, bidexka eta gurdi-bidetatik ibili denak ikusiko zuen gure putzuetan arrautza-multzo gelatinatsu batzuk agertu direla.

Hotzak iristean, baso-igel gorria gordelekutik irten eta putzuetan ugaltzen da. Anfibioak "odol hotzeko" animaliak dira, kanpoko tenperaturaren menpekoa da haien aktibitatea, baina baso-igel gorria hotzera moldatutako espeziea da.

Emea 2.000 arrautza errutera irits daiteke. Edonork galde diezaioke bere buruari nola den posible igeltxo baten tripatik horrelako arrautza-multzo handiak irtetea. Sekretua ondorengo da: emeak arrautzak askatzen dituenean, txikiak dira tamainaz, eta uretan puztu egiten direnez, bolumen handia hartzen dute. 2-4 hilabeteren buruan, arrautzetatik zapaburu beltz-beltzak jaio, eta orbelaren koloreko igel heldu bihurtuko dira.

Igel honek zomorroak jaten ditu, zizare, intsektu eta abarrak, eta, aldi berean, beste animalia batzuen harrapakina da, tartean, gurea.

Oñatin eta beste hainbat txokotan orain dela ez askora arte igel honen hankak jateko ohitura zegoen. Oilaskoaren antzerako zaporea omen du!

Oñatiko Natur Eskola



Argazkia: Ander Izagirre Egaña

» EMEA 2.000 ARRAUTZA ERRUTERA IRITS DAITEKE. EDONORK GALDE DIEZAIKOE BERE BURUARI NOLA DEN POSIBLE IGELTXO BATEN TRIPATIK HORRELAKO ARRAUTZA-MULTZO HANDIAK IRTETEA

» OÑATIN, ETA BESTE HAINBAT TXOKOTAN, ORAIN DELA EZ ASKORA ARTE IGEL HONEN HANKAK JATEKO OHITURA ZEGOEN

► HERRITARRENTZAKO URTARRILEKO EGITARAUA

URTARRILAK 27 (asteartea)

KREMA HIDRATATZAILEA EGITEKO TAILERRA (*)

Garbiñe Larrearen eskutik,
17:00etan, Natur Eskolan.

*Plaza mugatuak. Izena ematea beharrezkoa da, urtarrilaren 22a baino lehen, natureskola@yahoo.es helbidean edo 943 71 64 04 telefonoan.

Garbiñe Larrea
naturopatak
gidatuko du
tailerra



>> LITERATURA TXATALAK (X)

Graziano Anduaga, Gesaltzako aittajauna (III)**Kontakizunak (II)**

Testua: Roberto Altuna / Ilustraziñuak: Jabier Erostarbe

Birtute teologalak

Pernando Amezketarra fan zan txartela hartzera Garizuma garaixan. Abariak ittendu* otsan: —Dotriñante azkarra izango zara, duda barik! Pernandok erantzun: —Jauna, ondo ikasittakua ezta ahazketan. —Ia, ba, esan egizu, birtute teologalak. —Teologalak? Aurrena fedia eta bestia esperantza. Hirugarrenak badako milloi bat mudantza. Hil zan karidadia, bizi da bengantza.

(*) Ittendu = preguntau = galdetu

**Gure umia bizi izan balitza**

Araba aldian, senar-emazte batzuk bakarrik bizi ziran euren ume txikixarekin. Egun danerako sorora lanera fan bihar, eta soruak urrin. Orduan, umia eurakin batera hartu, otzaratxo batian sartu, eta eruan euen soro bazterrera. Illunkaran andria goizago etorri zan etxera, umia gizonak ekarriko eben ustian. Berandutxuago etorri zan gizona, umia andriak ekarri eben ustez. Eta gizona sukaldian sartu zanian: —Umia eztakatzu? esan otsan andriak. Nik uste neben zeuk ekarriko zebela. Eta gizonak, orduan: —Ba, orain fan egin bihar dogu ekartera. Andriak, berriz: —Ez hadi fan orain, bixar goizian be han egongo dok. Hurrengo egunian fan ziran, eta umia hildda. Aittak negar egitten eben, eta amak, orduan: —Gure umia bizi izan balitza, ze gogorra izango zan! (Hau gure amandriak kontaitten eben).

**Katuari koskabillua jarri**

Arratoi gazte talde batek behin batian egin euen ikaragarritzko jaixa. Jan, eran eta jolas egin. Eta erabagi euen: —Lehengo zaharrok leluak izan dittuk! Gu hemen betik katuen billurrez. Etxagok hola ze bizi! Katuari jarri bihar txaugu koskabillua*, eta soñua entzun arte patxaran egongo gaittuk.

Hartan egozela etorri xaten gazte askoren amandria. Eta barre egiñaz esan otsain hari: —Guk egin dogu asmaziño izugarrixa! Pentsau dogu katuari jartia koskabillua*. Amandriak erantzun osten: —A gaztedi lotsagarrixa! Guk antxiña asmau giñuan jartia koskabillua. Zuek asmau al dozue nun dan zeñek ezarrixa?

Orduan lotsatu ziran arratoi gaztiak eta ezagutu euen gaztearua ze zorua dan!

(*) Koskabillua = zintzarria = cascabel



- Kontakizunak moldauta dagoz Oñatiko euskerara.
- Itturrixa: Aitta Villasanteren 'Graziano Anduaga. Aitonaren uzta' liburua.
- Oharra: Kontakizun gehixago irakurteko jo Aitta Villasanteren 'Graziano Anduaga Aitonaren uzta' edo Ander Lizarralderen 'Graziano, eta beste...' liburuetara.

AGENDA

BERTSO SAIOA

URTARRILAK 5 / 19:00

ERREGE BEZPERAKO BERTSO SAIOA

Bertsolariak: Unai Iturriaga, Sebastian Lizaso, Miren Amuriza, Aitor Tatiegi, Maialen Lujanbio eta Sustrai Colina. Gai-jartzailea: Aritz Iza. Txinparta Bertso Eskolak antolatuta. [Zubikoa pilotalekuan](#).

DOKUMENTALA

URTARRILAK 13 / 19:00

'TXILARREKO SUKALDARIA'

Dokumental emanaldia eta solasaldia egileekin, egileak eta Txilarre baserriko Peio Rubio bertan direla. [Zine aretoan](#).

URTARRILAK 23 / 18:30

'SORGINA, BANAIZ'

Asisko Urmenetaren lana. [Zine aretoan](#).

ERAKUSKETA

URTARRILAK 19 - 30 /

'HABITAT: EUSKALDNON HISTORIA MAPEN BITARTEZ'

Nabarraldeak antolatuta. Astelehenetik igandera, 18:00-20:00. [Kultur etxean](#).

GABONAK

URTARRILAK 2 eta 3 /

GABONETAKO JOLAS PARKEA

Ohe elastikoa, puzgarriak, tailerrak, trena... Goizez, 11:00-14:00 eta arratsalde, 16:30-19:30. Egun erdia 3€ eta egun osoa 5€. [Zubikoa kiroldegian](#)

URTARRILAK 5 / 18:30

ERREGE MAGOEN KALEJIRA

Santa Ana antzokian hasita kalejira, eta ondoren, harrera Santa Ana antzokian.

HITZALDIAK

URTARRILAK 14 / 10:00

'EUSKAREN HISTORIA SOZIALA XVII ETA XVIII. MENDEETAN'

Hizlaria: Juanxo Madariaga historialaria. Goienagusik antolatuta. [Santa Anan](#).

URTARRILAK 20 / 18:30

'MUÑAGORRI, EL CONDE Y LAS CONDESAS: PAZ Y FUEROS (1745-1842)'

Hizlaria: Eugenio Ibarzabal. [Zine aretoan](#).

URTARRILAK 21 / 18:30

'ANTSO AZKARRA SUTAN!!'

'Materia' dantza-antzerki ikuskizuna

URTARRILAK 4, IGANDEA, SANTA ANA, 19:00



Bergarako *Candm Dance Studio* dantza eskolan sorturiko **Arima Project** taldeak **Materia** ikuskizuna taularatuko du Oñatin. Dantza garaikideko ikuskizun bat da, euskal mitologian barrena ibilaldia egiten duena, pertsonaia femeninoak eta naturako elementuak (ura, haizea, kaosa, lurra eta sua) bidelagun ditu-ena, ondarea eta modernitatea, erritua eta egunerokotasuna, folklorea eta berriuntza uztartuz, emakumea protagonista delarik.

'Nor naizen baneki' antzezlan

URTARRILAK 18, IGANDEA, SANTA ANA, 19:00




Harkaitz Canok eta Ximun Fuchs-ek idatzitako **Nor naizen banekin** antzezlan taularatuko du **Artedramak** Oñatin. Halxe aurkeztzen du konpainiak antzezlan: 'Nor naizen baneki... Zuk badakizu? Jakin nahi zenuke? Bada jakin ondoren damutu denik? Angelu guztietatik nahi zenuke zeure burua ikusi, ala behar da angelu itsu bat? Ezagutu daiteke norbere burua isolatuki, norbere ingurunea ezagutu gabe? Nola jakin, zinez, zarena zarela? Gurasoen ispilun? Seme-alabenean? Aztarnei esker? Nola jakin nor zaren, ingurune aldakor batean etengabe aldatzen dena bazara? Ez ote da antzerkia barne indusketarako tresnarik onena?'

'Kimu' haurrentzako antzezlan

URTARRILAK 25, SANTA ANA, 17:00

Marie de Jongh taldeak 'Kimu', estreinatu berri duen antzezlan, taularatuko du Oñatin urtarrilaren 25ean. Publiko osoarentzat eta, bereziki, sei urtetik aurrerako haurrei zuzendutako ikuskizuna da. Honela aurkeztu dute: 'Kimu, natura eta irudimena, irudimena eta natura, biak uztartzen dituen ikuskizuna da. Aukera infinituak eskaintzen dituzten unibertsoak biak, elikatzen ez baditugu, zaintzen ez baditugu, ereiten ez baditugu, horixe izango dugu: aukera gutxiago. Errealismo magikotik kontaturiko istorioa, maskara eta hitza baliatzen dituen ikuskizuna'.



Hizlaria: Cesar Oroz. [Zine aretoan](#).

URTARRILAK 27 / 18:30

'ORÍGENES DEL NACIONALISMO EN EUSKAL HERRIA'

Hizlaria: Xosé Estévez. [Zine aretoan](#).

URTARRILAK 28 / 18:00

'BAKARDADEARI BURUZKO HITZALDIA: KOMUNITATEAK DAUKAN ZEREGINA'

Hizlaria: Elisa Sala Mozos, ikerlaria eta gizarte aholkularia. [Kultur etxean](#).

URTARRILAK 28 / 18:30

'PANFLETO BAT ATZENDURAREN KONTRA' LIBURUAREN AURKEZPEN

Pello Salaburu hizkuntzalariaren liburu aurkezpena. [Kultur etxean](#).

URTARRILAK 30 / 18:30

'ZUMALAKARREGI Y LA REPÚBLICA DE LOS PIRINEOS'

Hizlaria: Joxemari Esparza. [Zine aretoan](#).



'Haizeak ekarritako ipuinak'

URTARRILAK 29 / 18:00

Udal liburutegiak antolatzen duen Ostegun Kontalariak ekimenaren baitan, LH1etik gorako gaztetxoei zuzendutako ipuin kontaketa saioa, Ines Bengoaren eskutik. Gonbidapenak, urtarrilaren 19tik aurrera. [Haur liburutegian](#).

IKUSKIZUNAK

OTSAILAK 1 / 17:00

EKAIN PAILAZOA

'Hautsak harrotzen' ikuskizuna, pailazokeriak eta malabarismoa uztartuz. Burrunda faktoriak antolatuta. [Antixena](#) gaztetxean.

MUSIKA

URTARRILAK 6 / 13:00

'VIENAKO EMOZIOAK'

Musika Bandaren kontzertua. [Zubikoa](#) pilotalekuan.

URTARRILAK 11 / 12:30

PERU ALTUBEren, 'NEGUKO IZARRAK'

Jazz musika eta euskal kultura uztartzen dituen Arrasateko bateria-jolearen kontzertua. [Gaztelekuan](#)

URTARRILAK 31 / 22:00

BURUTIK + LUKIEK

Iruñerriko pop-rock eta Mungiako rock taldeen kontzertua. [Gaztelekuan](#).

TAILERRAK

URTARRILAK 10 / 10:00-14:00

FAMILIA KONSTELAZIOAK

Eltziako Artez Hezten / Creciendo con Arte taldeak antolatuta, M^a Luisa de Dios García adituak gidatutako tailerra. Erreserbatu zure tokia: 628 212 839. [Eltziako 'Artez Hezten' gelan](#).

ENEAGRAMA TAILERRA

Maitek eta Lourdesek gidatuta. Hilean larunbat bat. Harremanetarako: 658 719 086 / lourdescid1@hotmail.com. [Lagun Leku \(Eltzia\)](#).

ZINEA

Zine-kluba: Osteguna (19:30)

Nagusia: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 / 22:00) eta Igandea (19:30)

Gaztetxoak: Larunbata eta Igandea (17:00)

Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

URTARRILAK 3 - 4

ZINE KLUBA:

-

NAGUSIAK:

SPRINGSTEEN:
DELIVER FROM NOWHERE

GAZTETXOAK:
200% WOLF



URTARRILAK 8 - 12

ZINE KLUBA:

LOS COLORES DEL TIEMPO (VOSE)

NAGUSIAK:
AVATAR. FUEGO Y CENIZAS

GAZTETXOAK:
AVATAR. FUEGO Y CENIZAS



URTARRILAK 15 - 19

ZINE KLUBA:

BLUE MOON (VOSE)

NAGUSIAK:

FRONTERA

GAZTETXOAK:
BOB ESPONJA:
UNA AVENTURA PIRATA



URTARRILAK 22 - 26

ZINE KLUBA:

KONTINENTAL 25 (VOSE)

NAGUSIAK:

RONDALLAS

GAZTETXOAK:
OILASKOAERBIA
ETA MARMOTAREN SEKRETUA



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 / ☎ 943 78 21 16
Urtarrilak 2, 3, 4, 12, 13, 21, 22, 30 eta 31. Otsailak 1.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 / ☎ 943 78 01 22
Abenduak 31. Urtarrilak 1, 5, 14, 15, 23, 24 eta 25. Otsailak 2 eta 3.

GARATE

Kale Barria 42 / ☎ 943 78 05 58
Abenduak 29 eta 30. Urtarrilak 6, 7, 8, 16, 17, 18, 26 eta 27. Otsailak 4 eta 5.

ULDAIN

Kale Barria 6 / ☎ 943 78 11 28
Urtarrilak 9, 10, 11, 19, 20, 28 eta 29. Otsailak 6, 7 eta 8.

ODOL ATERALDIA

URTARRILAK 16 / 16:30-20:30

MU-ko Enpresagintza fakultatean. Aurrez, <https://gotatanta.eus> atarian har daiteke odola emateko txanda. Bestela, egunean bertan **943007884** zenbakira deituta.

MERKATU TXIKIA

ALOKAIRURAKO ETXE BILA

Bikote arduratsua etxe bila. Lan egonkordun bikote lasaia eta arduratsua gara. Ez-erretzaileak eta erreferentziadunak. Deitu: 602 803 590 / 674 571 327 (Diana eta Michael)

LURSAIL BILA Ganaduarentzako lursail bila nabil. Deitu: 656 391 607

UMEAK ZAINDU Oñatiko neska, arduratsua eta atsegina, umeak zaindu edo eskolara eramateko prest, eta adineko pertsonei konpainia egiteko eta paseora ateratzeko prest. Deitu: 695 738 795

BASERRIA Baserria erosi edo alokairuan hartu nahiko nuke. Deitu: 620 710 109.

MERKATU TXIKIA

ataleko iragarkiak dohainik dira.
kontzejupetik@onati.eus
943 78 20 72

*Urte honek erakutsi digu elkarlan sendoak
edozein egoerari eutsi diezaiokeela.*

*Eskerrik asko gurekin jarraitzeagatik eta
gure balioak partekatzeagatik!*

*2026an indarberrituta sartzen gara:
talde-lanean, errespetuan eta mugimenduan
oinarrituta.*

Urte berri on!

by @muxotepotolobat